

GOIERRITARRA

2.500 aleko tirada • Ale berezia: 25. Zenbakia

124 p.k. Ordizia —Goierrialdeko Aldizkaria— dohain banatzen da

GOIERRITARRA HILABETEKARIA.

92ko Ekaina



Euskalgintza

Goierri

GEMA M. ARRUGAETA

- ❖ **ERREPORTAIAK:** BEASAIN ETA ORDIZIAKO UDAL EUSKALTEGIAK ESKUALDEA EUSKALDUNTZEN BAI ETA ERE. DATUAK, BALORAZIOAK.
31.-GO EZKIOKO AMABIRJINAREN AGERPENAK, XABIER MENDIGUREN EZKIOTARRAREN ESKUTIK. URBIA-OLTZEKO ARTZANTZA.
- ❖ **ELKARRIZKETAK:** DIONISIO AMUNDARAIN, GOIERRIKO EUSKALTZALE HANDIAREN ITZALA. G.E.E.-REN PROIEKTUAK, MARIJOXE MADARIAGAREN HITZETAN. XABIER MENDIGUREN BEASAIN DAR IDAZLE OSPETSUAREKIN. JEXUX LETE "IBAI-ERTZ" ITSASONDOARRA BERTSO- KONTU-KONTARI. "ATERPE" TABERNA-GALERIAKO NAGUSIARI.
- ❖ **OHIZKO SAILAK, BERRIAK, ETA ABAR.** 36 ORRI-BETE.

PERIODIKOAK



HITZ ETENA

E u s t a k i o
Mendizabal
T X I K I A ren
bertso eta
o l e r k i a k

Jon Aranok
prestatutako edizioa

maiatzean kaleratu du
SUSA argitaldaria

Susa

L I T E R A T U R A

Industrialdea, 1-2. 200160 Lasarte-Oria. Tel. 37 07 38



GERTU INPRIMATEGIA

Badugu zeresanik aldizkarigintzan

Zubillaga Industrialdea, 9. 20560 OÑATI (Gipuzkoa) Tfnoa. (9) 43 78 33 09 Fax. (9) 43 78 33 09

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

25. zenbakia. 92.eko Ekaina. Debaldeko alea. Tirada: 2.500 ale. 1.900 harpidedun.

Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea. Dorre-etxea, behea. Tfna: 889612. 124 posta kutxa. Ordizia.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailaren diru- laguntza jaso du. Era berean, Goierriko Udal askoren dirulaguntza jaso izan du joandako bi urtetan eta oraintxe itxaroten ditugu laguntzak aurtengorako.

Dirulaguntzak agindu dituzte: (30 pzta. biztanleko, 2 epeetan) Arama, Altzaga, Ataun, Beasain, Ezkio-Itxaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Zaldibia eta Zeraingo Udalek. Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Zuzendaria: Jon Mikel Arano.
Publizitate arduraduna eta lagunt-

zailea: Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Tere Irastortza, Andoni Sarriegi, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Edurne Garmendia, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna eta Rosa Amundarain.

Kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Mikel Aramendi, Iñaki Murua, Xabier Gartzia, Marian Iturrioz, Marijoxe Madariaga, Jesus Munduate, Andoni Aizpuru, Ane agirre, M. Paz Martin, Xabier Mendiguren Bereziartua, Xabier Mendiguren Elizegi, Kexexo, Jon Belarra, Jon Zabalegi, e.a.

Gure eskerronak: Gure "sponsorei": publizitatea ematen diguten guztiei. Idiazabalgo AMPO Kooperatibari eta Arstrain Fundazioari beren dirulaguntzagatik. Goierriko Herrien Ekintzari, "Zure-Argazki" eta "Fotoetxe"eri, "Egunkaria", Lankide Aurrezkia, "Argia"ri. Era batera edo bestera lagundu

nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzenoi.



Zein da aldizkari irakurriena Goierrin? Zure publizitatea 2.500 txokotara iristea nahi baduzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIERRITARRA iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa. Dei 889612 telefonora.

Fotokonposaketa, maketazioa eta inprimaketa: GERTU KOOP E. (Zubillaga. Oñati)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ZURE IRAGARKIA HEMENTXE
BALEGO, ZEU IZANGO ZINATEKE
DUEN ERAGINA IKUSTEN



88 96 12



GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria Tf.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER

GOIERRITARRA

Tfnoa: 88 96 12

1992ko publizitate-prezioak:

(Behin):

Modulo bat.....4.000 pzta.

Bi modulo8.000 pzta.

Orrialde erdia.....20.000 pzta.

Orrialde osoa.....40.000 pzta

Prezio hauek zenbaki baterako balioko dute. Urtean 10 zenbaki argitaratu behar dira.

ratzen ditugunez, 5 edo 10 zenbaki-tan beren publizitatea egin nahi dutenek hurrengo deskontua izango dute:

Modulo bat.....3.500 pzta.

Bi modulo7.000 pzta.

Orrialde erdia.....17.500 pzta.

Orrialde osoa.....35.000 pzta.

Idea jatorrenak ere bultzada behar izaten dute.

Udal arduradunek lagundu behar diote

GOIERRITARRARI.

ARGIAREN HARPIDE IZAN NAHI DUT:

IZEN DEITURAK:

HELBIDEA:

HERRIA:

P.K.:TFNOA:

HERRIALDEA:

BANKUA/AURREZKI KUTXA:

SUKURTSALA:

KONTUAREN ZENBAKIA:

Irakur biharko prentsa gaurtik

Industrialdea, 1-2 pabiloiak

20160 Lasarte-Oria

Tfnoa: (943) 37 15 45 - (94) 424 46 63

Faxa: (943) 36 10 48

MAKINERIA ERAKUSKETA
HORNIKUNTZA INDUSTRIAL ETA
EGUR BILTEGIA

EGURRA, S.L.

Jose M. Iturrioz, z/g.

Telefona: 88 06 21

Fax. 88 06 21

20200 BEASAIN

C-N 1

Telefona: 88 29 44

OLABERRIA

HIGIEN SEC Gurutze Ruiz de Azua

LEHORREKO ETA BUSTIKO
GARBIKETA BAKTERIOLOGIKOA

Urdaneta, 52 - Tel. 16 14 48 • 20240 ORDIZIA

ALOSKA



Edergintza-Usaindegia

Domingo Unanue Plaza,2

20240 ORDIZIA

Tel. 88 24 10

MARRAK
IDOIA - KARMELE
ESTILISTAK

Foru, 1 - Tfnoa: 88 89 34

20200 BEASAIN



Lana

- ✓ **Neska gazte eta euskaldun** batek gizonezkoen lanak ere egingo lituzke. Bulego-garbiketari, enpapelatzen, taberna-jatetxeetan... Edozein gauza, etxe-ko-lanak ezik. 801065, Edurne.
- ✓ **Espesientzia askoko 24 urteko mutil** bat ostalaritzako edota bestelako lanetarako prest. 884697-ra dei.
- ✓ **Bi neska** eskola, bulego, e.a.-etako garbiketari egiteko pronto. Dei eguerdiko 1etatik 2etara. Nekane: 883166.

Salmentak

- ✓ **"Horizon (Ineska)" karro-denda** (5-7 eserleku) salgai, erdiprezioan, egoera onean. Tel.: 885484.
- ✓ **"Yamaha" (X5-600) motorra** salgai, egoera ezin hobean. Interesatuok dei: 801399.
- ✓ **Italiar soinu tekladuna** salgai. Tel.: 557272.
- ✓ **Aizu!** Ba al dakizu surf-taula bat salgai dagoela? Erabili gabea gainera. Dei 885130ra eta elkarren artean erabaki du dugu salneurria.

Etxebizitzak

- ✓ **Berezko bezeroak dituen** "Pub-kafetegia" alokatzen da Urretxun. Tf-nak.: 811528-815733.
- ✓ **Etxebizitza salgai** Ordiziako Urdaleta kalean: 97 m². bi bainu-gela, gela guztiak egutera aldera, ia guztiz jantzia, ganbara du. Garajea aukeran. 889612, Ramon.
- ✓ **Pisua salgai Lazkaon**, jantzia eta argitsua. Interesaturik balego inor, dei beza 881592 telefonora.

Urtebetetzeak

- 1901.eko ekainaren 14ean jaio zen Atanuen Manuel M. Apalategi euskal idazlea. Kaputxino honek Ataungo Aita Bonifazio izenez sinatu zituen bere lanak. "Zeruko Argia"n idazten hasi zen 19.ean; olerkia, entsaioa, ikerlanak, denetarik idatzi zuen garaiko euskal prentsan. Tagoreren "Amal" itzuli zuen euskarara. Gramatika menperatzen zuenez, 60.ean "Gure Aditza" argitaratu zuen Argentinan. 64.ean "Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos" delakoaren zuzendari izendatu zuten.
- 1885.eko apirilaren 23an jaio zen Zegaman Jorge Agirre jesuita. "Gure Mutillak" luistarren aldizkariaren sortzaile eta zuzendari. "Argia" eta "Jesus'en Biotzaren Deya" aldizkarietan eta Bilbo-ko "Mensajero..."-eko euskarazko orrietan idatzi zuen. 37.ean Ertamerikara joan zen eta bertan "Militantes" aldizkaria sortu eta zuzendu zuen. New York-en hil zen 47. urtean.

"EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN"

Plangintzan parte hartzeko interesa duten ikasleentzako nahiz ikasleok hartu behar dituzten euskal familia horientzako baldintzak ezartzen dituen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sai-

laren Aginduen kopiak Udaletxeetan aurki daitezke. Egonaldiak uztailetik irailera bitartean gauzatuko dira eta hilabetekoak izango dira.

LAZKAO-TXIKI I. BERTSOPAPER LEHIAKETA

Antolatu du Argi Berri Elkarteak. Lehiaketa hiru ataletan sailkatuta dator: gaztetxo saila, gazte-saila eta helduena. Gaztetxo saileko gaia: "Eta udan zer?"; helduena guztiz libre. Lanak uztailaren 1a baino lehenago bidali: "Argi Berri" Elkarteak, (Bertsopaper Lehiaketa), Gipuzkoa kalea, 15, Ordizia. Beste argibiderik edo behar izanez gero 889600 telefonora dei daiteke bulego orduetan, edota 885228ra bestela **AZPILLAGA ETA LOPATEGI BERTSOLARIEI OMENALDIA ZERAINEN**

egin zaien Ekainaren 7an (Igandea) goizeko 11etan Herriko Frontoian. Goierri aldean batera hainbat ekitaldi egin dituzten bi bertsolariak omenduko dituzte, Elorza, Iturriaga Enbeita, Amuriza, Goierriko Bertso-laldea, Lizaso, Agirre, Peñagari-kano, Egaña, Lazkano, Lazkao Txiki eta Sarasua bertsolariek; Etxaluze eta Olea aurkezle. Ondoren bazkaria; txartelak Zeraingo Ostatuan (tel. 801799) salgai. Antolatzaileak Zeraingo Udala, Kultur Etxea (tel. 801724) eta Liztor-Mendi Elkarteak

ORDIZIAKO (GOIERRIKO) GAZTETXEKO AKTIBITATE EGUTEGIA

Gure berri: Ekainaren 12-13-14 (Ostirala, zapatua eta igandea) GOIERRITARREN Asteburua. "Aldizkariaren" jakurketa Erakusketa 12an inauguratu da. Ondoren afari intimoa bertan. GOIERRITARREN-FESTA Idiazabalgo Trikitilariak, Atxi, Aitor eta Mitik, alaituko dute. "GOIERRITARREN Goierriko Gaztediarekin euskaraz tirri-tarra" eta alderantzizko leloak. Ekainak 14: "Arabian Euskaraz"-era autobusaz

20ean: Agostinho Memorialaren edizio berria.

23an: San Juan sua.

26-27: Gaztetxeako Argazki-erakusketa.

Bestelakoak: Arin-Arin eta Fandangoko ikastaroak martxan. Igandean filme desberdinen proiektzioak (oraindik zehaztu gabe daude). Malabarismo ikastaroak, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao eta Ordiziako Gazte Asanbladek antolatutakoak.

ORDIZIA-BEASAINGO GOARDIAKO FARMAZIAK

Ekaina: 4: Azpilikueta; 5-6-7: Jauregi; 8: Launaga; 9: Cuesta; 10: Arriola; 11: Urbizu; 12: Atorrasagasti; 13-14: Urbizu; 15: Azpilikueta; 16: Jauregi; 17: Launaga; 18: Cuesta; 19: Arriola; 20-21: Launaga; 22: Urbizu; 23: Atorrasagasti; 24: Azpilikueta; 25: Jauregi; 26: Launaga; 27-28: Azpilikueta; 29: Cuesta; 30: Arriola.

LEGORRETAKO FESTEN HONDARREAN

Ekainak 20, larunbata: Herri-krossa, eguerdiko 11etan Bilkoinek antolatua. 12etan sari banaketak. Arratsaldeko 4etan, 3. Legorreta Mountain Bike Sari Nagusia. 6etan, 3. ardo dastatze Txapelketa. 6'30etan, Udalak ardo bikain bat eskainiko du herritar eta bisitariarentzat. 7'30etan Usariozko Meriendak Plazan. Ondoren eta goizalderarte, Dantza Saioa Joseba eta Ander Trikitilarien esku-tik.

"Goierriera" dela eta ez dela...

Ezertan hasi aurretik, bihoaz nire zorioren beronenak GOIERRITARRarentzat, beste behar duen papera ondo betetzen dela esango bait nuke. Hobetu daiteke, jakina, baina bide onetik badoa, zer eska dezakegu gehiago?

Eta zurikeriatan nabilela inork pentsa dezan aurretik, idaztera bultzatu nauen gaiari heldu beharko diot, maiatzek alean Xabier Armendaritzek jorratzen zuenari alegia. Bat nator zurekin GOIERRITARRAk erabili behar duen hizkuntzari buruz agertzen duzun ikuspegiari, eta beldur naiz piztu nahi duzun su horretarako eskaintzen didazun egurra heze xamarra ez ote den, baina tira, hona hemen bide beretik egin nahi nukeen ohar pare bat.

Alde batetik ez dut garbi ikusten txokokerian ez dugula erori behar esatean "txokokeria" hitza zein zentzutan erabiltzen duzun. Horrekin gure hizkeran esan ezin ditugunak esan ahal izateko batuara beldurrik gabe jo behar dugula adierazi nahi baduzu, ados; bestela, honelako aldizkariak txokokeriak onartu ezezik bultzatu ere egin behar dituztela uste bait dut. Bestela esanda, hizkuntza standard batek

bazterreratu behar duen hizkuntzaren zati horrentzat gordeleku behar dute izan GOIERRITARRA bezalako aldizkariak.

Bestalde, txokokeria horiei muga jarri behar zaie, noski, ezinezkoa bait da hitz egin bezala idaztea. Eta mugatze lan honetan sortzen zaizkigu arazoak, xedea desberdina izan behar bait du hiztegi mailan, morfologian...

Fonetika mailan ez dut uste batuatik gehiegi urruntzea komeni denik, bestela lokazti galanteen sar gaitzek eta. Dena dela, "handia", "aundia" eta "aundie" artean erdibidean den "haundia" hobestekoa litzateke beharbada...

Hemen ez dut zure jarrera oso ondo ulertzen, zer dela eta "nun" eta "ze" aukeratzeko dituzun baina ez "zegatik", "baztar" edo "det" erabiltzen dituzun "zergatik", "bazter" edo "dut"en aldean.

Bestalde, hiztegi mailan (esamoldeak eta gainerakoak

barne direla) ez dut aparteko oztoporik ikusten txokokeriei sarrera libreka uzteko.

Azkenik, morfologia eta joskera mailatan batuari gehitxo lotzen gatzazkiolakoan nago, agian susmo hutsa izan daitekeen arren. Adibidez, gaztelerako "sino" horren ordeaz arrunta da "baizik" entzutea, hemen inoiz erabili ez dena. Beste adibide bat jartzearen, eta proposamen modura, ez al litzateke posible idaztean ere batuako "eman iezaiezu" moduko ordeaz "emaiezu", "eman egiezu" edo antzekoren bat erabiltzea? Ez al da lehenengo hori arrotzegia guretzat?

Tira bada, hauxe nuen esateko guzia. Barkatuko al didazue atrebentzia... eta hurrengora artean, ondo bizi bitartean.

F. Altuna

"Antzarren" San Prudentzio

"San Prontziotan" umeentzat festarik handiena plazan egon da: barraketan. Etengabe hortxe ibili dira buelta alde batera eta jira bestera, guraso, aiton-amona, osaba-izeba eta ahal zuten guztia poltsikoa hustu arte...

Dena dela, eta Udalarekin egindako hitzarmenari esker, beste herri batzutan baino merkeago zeuden bidaiak (hamarna duro bakoitza).

Eta denboraz ere ondoso samar portatu dira, jendez gainezka zeudenetan salbu. Baina, ez al zirudien barraketara inguratzean Extremadura, Andalucia edo eta Ingalaterrako edozein lekutan geundela? Musikaz ari naiz, bai. Kultura guztietako musika eta beraz hizkuntza guztietan entzutea interesgarria delakoan nago, baina eta euskalduna?

Egun mota guztietako musika entzun daiteke euskaraz: rock-a, baltzak, mexikarrak, rap-a... Esan beharrik ez dago, gainera, barraketara inguratzen diren ume, gaztetxo eta gazteek oso gustoko duten musika

badela euskaraz (Hertzainak, Su ta Gar, Egan, Drindots...). Beraz, zergatik ez eman lehentasuna euskarazko musikari? (Euskararen mesedetan, badago eta premia!). Jira honera eta bira hara, ileak tenete, ahoa zabalik eta garraisika gabiltzala trikitixa ere entzutea lekuz kanpo al dago?

Aurten bidaien denbora luzatu eta prezioa iaizkoan mantentzen saiatu den bezala (eta lortu duenez, zorionak!) datorren urterako barraketan euskal musikaren presentzia estatu eta exijitza eskatuko nioke eta eskatzen diot Udalari.

Aurtengo San Prontziok horrela beharko du, baina gauza bera gertatu behar ote da eta gauza bera jasan behar ote dugu Goierriko beste herrietako festetan ere?

Loinatzak, San Joanak, San Pedroak... eta gaineratik "santu" eta "santak". Alimo herri desberdinetako euskaltzaleak eta ea gure ume eta gazteen xoxak ermaten dituzten barrakazaleek 1.000 edo 2.000 durona gastatu eta euskal musika ere erosten duten...!

Giro berde hori koloreztatzea, hein handi batean, gure esku dago.

Mari Joxe

A ZE FLAXA

CORRESPONSALIA

Los pueblos tienen sus relaciones. Nacidas unas veces de su propia proximidad. •Impuestas otras veces por necesidades de la vida.

Intercambios comerciales, horas de trabajo, diversiones o espectáculos compartidos, son como eslabones que les agrupan a una corriente de vida y pensamiento. Beasain, Villafranca, Isasondo, Zaldibia, Lazcano... se hallan vinculados entre sí por muchas ligazones. Naves de la misma fábrica acogen a sus hombres, esfuerzos laboriosos y necesidades humanas les sitúan en un codo a codo ante las máquinas, transacciones comerciales e intercambios domésticos les atraen a una misma feria, afanes deportivos y pugilatos balompédicos les hacen elevar un clamor común.

Esta corriente de intercambio y de vida existente, nos impulsa a recoger en esta página las inquietudes de los pueblos, al par que con una nueva vinculación de religiosidad y de información de sus actos, estrechar y elevar sus vidas a las exigencias de su fe cristiana y de su renovada tradición. La vida religiosa y los programas juveniles serán el exponente y la manifestación de los pueblos, recibida en esta página a través de los correspondientes.

"Goyerriko Gaztedia"-tik, 50. hamarkada

GOIERRIKO EUSKAL ESKOLA



Elozei 16, 1. ezker.
20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

Tel. 16 02 82
Faxa: 88 79 71

Zer diozu "tele-kulebroi"-ez?



Jesus Manuel Mundeate, ordiziarra, 28 urte, kazetaria.

Kulebroien zati ez berdinak ikusten ditut, kate guztietan azaltzen baitira, baina ez ditut jarraitzen. Kalitate aldetik ez dira onak, baina horien gorakadak bere arrazoiak ditu, merkeak ateratzen dira eta programazio-orduak bete ditzakete. Gaurko telebisten arteko lehia, kulebroi batek arrakasta lortuz gero, besteak atzetik dihoazkio. Azken finean, ikus-entzulegoa nolabait "harrapatzeko" eginak daude eta lortzen dute. Niri behintzat harrapatu ninduten orain urte batzu. Jendearengan duten eragina gehiegizko iruditzen zait, halere.



Sol Lozano, 28 urte, langabea, lazkaotarra.

Arazoa ez da kulebroiak ikustea edo ez ikustea. "Rubi" eta beste programaren bat bakarrik ikusten dut nik telebistan. Noski, filmak ere bai. Zeure prolemez ahaztu zaitezke orduerdiz: esaten dituzten memelokeriak ikusi, eskape bezala. Jakina, entretenigarriak dira eta parre egiten duzu, baina ez dut gomendatzen hori ikusten eguna pasatzea. Oso aktore txarrak dira %99'99a, oso errepetitiboak, beti da gauza bera. Gidoiak kontraesanetan erortzen dira, gauetik goizera egingo dira, ze gaur esandakoa bihar ezeztatuko dute. Baina adi!, urteetarako harrapa zaitzakete.



Marta Paredes, irundar goierritarra, gaztea.

Halako telesail askorik ez dut ikusten, bestelako zaletasunak baititut. Oso zalea ez izateak horiek kritikatzeko eskubiderik ez dit ematen. Cervantes edo Lorca irakurri dutenak ere gozatzen dira programa hauetaz. Harategian, okindegian, ondokoarekin hizketalditxo bat egiteko aukera ere ematen dute. Agian gehiegi konparatzea da baina, "sugetzarrak" tabakoa bezalakoak dira: guztiek diote txarra dela, baina nork ez dio inoiz zigarro bati tira egin?



Mirari Amundarain, 14 urte, ikaslea, ordiziarra.

Batzutan ikusi izan du kulebroi horietako kapituloren bat, baina ez naiz jarraitzaile kontsideratzen. Kulebroiak luzeegiak dira eta azkeneko aspergarriak bihurtzen dira, gainera kalitatea oso txarra da. Nik nahiago ditut "Padres forzosos"-en antzeko telekomedia ipar-amerikarrak.

KORTA mariskeria

Etxeko haztegiak

Menu Berezia (2 pertsona gutxienez)

- ☐ Langostinoa ☐ Txangurroa
- ☐ Almejak ☐ Misera -
- ☐ Añares cava edo Antina horratzardoa -
- ☐ Postrea, kafea likoreak-


PREZIOA: 3.500 pta. (+ BEZ)

GABIRIA

Tfnoa: 88 71 86

Ba al dakizu...?

❖ GIZARTEA



Anai Sebastian Elorza pobreei ogia banatuz.

ANAI SEBASTIAN Elorza idiazabaldar prailearen beatifikaziorako kausa 68.ean ireki zen eta dagoeneko santutegi bidean dago, bere gorpuzkiak komentutik etara eta ikertu ondoren, Burgos-en. Anai Sebastian popularra izan zen bai han eta bai bere jaioterrian, ogia eta jangaiak pobreei banandu eta gerratean hainbati laguntzeagatik. Orain 50 urte hil zen. "Izal"go beste 7 herriko seme-alaba badira santu-gai zerrendan.

JOKIN ALDANONDOK, Ceutan espetxeratua dagoen beasaindarrak, 30 egunetik gora egin ditu gose greban. Beasaingo zenbait zinegotzik bisita egin zioten eta zuzendaritzak "non grato"ak zirela adierazi

zien.

ORDIZIAKO LAU GAZTE GOSE-GREBAN sartu dira Salto del Negroko presoena apoiatzearen.

AFARI BAT egin dute orain berriki sorterrian. Donostiako eroldan (padroian) 300 ataundar. Ataundarren kolonia edo 4. auzoa Donostian beraz? Izan ere, NASAKoak hilargiratzean, nor aurkituko eta ataundar bat aurkitu omen zuten handik, bere xexto eta guzi. Ataundarrak ttottoaren ipurdian ere bai!

LAZKAO-BEASAIN-ORDIZIA inguruan telebista lokal baterako proiekturen bat dabilen hotsak.

LAZKAKO IKASTOLAK mozio bat aurkeztu zuen bertako Udalaren aurrean, Udal Batza horrek Hezkuntza Sailekoak Ikastolen Federazioarekin bil ditezten eskaria egin dezan esijituz. Onartua izan zen.

ORDIZIAKO UDALAREN aurrean Jakintza Ikastolak aurkeztu zuen mozioan Buesaren jarre-rra kritikatzeko eta Gasteizko Legebiltzarrean hartutako erabakiak betetzeko eskatzen zen. EA eta HBk bakarrik bultzatu zuten proposamena.

"INDAR S.A."KO LANGILEAK mobilizazioei ekin diote joandako hilean, 90 langileei kontratoak etentzeko espedientearen aurka. ELA eta LAB langilegoaren berriraketa modu ez-traumatikoen bidez eta borondatezko "bajen" bidez egitearen alde.

RENFEK ZUMARRAGATIK Beasain arteko burni-

bidearen 12 km. berregin ditu. Hobekuntzak Beasaingo garraio publikorako seinaleztapenean.

BEASAINGO UDALAK ETA DIPUTAZIOAK ere baserriarrek telefonoak jartzea erraztuko dute subentzioen bidez. Baliogutxitei norbanako laguntzak emango zaizkie, era berean.

MEDIKUAREN KONTSULTARAKO arau berriak Idiazabal.

ORDIZIAKO ARBOLEDA inguruan Ordizia Gaztandegiaren denda ireki berria da, atzerapenak atzerapen. Beronen arduradunek esan digutenez, propaganda gutxi egin da eta saltokia nahikoa ezezaguna



da oraindik, denda berrietara joateko ohitura falta ere nabaria da. Bertako baserrietako produktuak eskaini nahi dituzte hemen, gaztaz gain sagardoa, txakolina, artesautza, e.a. Horiek lantzekotan eta kalitatea definitzekotan dabilza orain.

FESTA INGURUETAN (eta bestela ere bai), makina bat burugabekeria, erokeria, kristal-txikiketa, zuhaixken "hilketa" eta beste ere egiten dira. "Ezer

GOIERRITARRA-rekin

GOIZTIRI




EUSKALTEGIA

ORDIZIA: Sta. Ana Ikastetxea - 88 91 74 Telefonoa
BEASAIN: Nagusia, 15 - 1 - 88 93 40 Telefonoa
LAZKAO: Ellosegi, 16 - 2

BANCO DE VITORIA

Askot iristen ez diren lekuraino



Kale Nagusia, 35. Tfnoa (943) 16 07 66 • Faxe: (943) 88 27 48 - 20200 BEASAIN

GOIERRIKO GAZTE ASANBLADAK
ORDIZIA, IDIAZABAL, LAZKAO ETA
ITSASONDOKOAK
GOIERRITARRAREKIN

AVICOLA ERREKALDE

OILASKO GORRIAK

Kalitatezko oilaskoa gustatzen zaizu?
Baina markako oilaskoa!
PROBA ITZAZU!

Hegazki-granja ERREKALDEN dauzkagu. Gorri normalak, lepo soilak, adin ezberdinekoak.

GRANJA SALMENTA.
BANAKETA EUSKAL HERRI OSOAN
Tel.: 80 61 98 - LEGORRETA

ez eta pesta", apustu baten ondorioz edo indarra erakusteko...(?), aidanez. Lazkao San Prontzioetan 11 zuhaixka txiki-txiki eginda utzi dituzte. "Datorren urteko egitarauaren bame sartu beharreko ekintzak ote?", galdetzen digu Lazkao lagun batek. "Ez dago eskubiderik!" esanez jarraitzen du, eta hala ezjakinean eginak badira, nola zer egiten duten ez dakitela eginak badira, azainon egileek merezi dituztela pasara batzu esanez amaitzen du.


TXIKIKETA ETA LAPURRETA UGARI inguruotan. Ez dago esaterik, baina heroina drogazale zenbait leudeke horien atzean, Ertzaintzaren esanetan.

KULTURA

10 URTE IGARO DIRA "Argi Berri" elkartekoek Bertso-eskola martxan jarri zutenetik. "Lan emankorra eta esperientzia oparoa izan da 10 urteotan zehar atera duguna" aitortu dute. Urteurren hori ospatzeko eta Bertso-eskolaren osagarri egokia izan daitekeela koan, I. Lazkao Txiki Bertsopaper Lehiaketa antolatzea pentsatu dute. "Izan ere Lazkao Txiki izan da eta da oraindik bertsolaritzaren ispilu eta eredu paregabea goierritarrontzat". Hori horrela, beren omena eskeini nahi izan diote Joxemigeli argiberritarrek.

RAKEL LEGORBURU ETA OLGA MADINA ordiziarrek pintura erakusketa bat antolatu zuten Altsasuko "Lurrazpi" tabernan. Joseba Alonsoren eskultura bat ere ikusgai izan zen. Uztailean zehar beste erakusketak bat eskainiko digute Beasaingo "Aterpe" tabernan.

"POTROTAINO" TALDEARI ondo dihoakio: denboraldi txarrean atera arren beren diskoaren 1. edizioa agortuko omen udako. Espainiako "rentree" datorkie orain, "Ruta-66" aldizkarian aterako dira



Lazkao Txiki (Fotoetxe)

ekainean. Gustora daude orainarteko emaitzarekin. Hori bai, kamisetak saldu beharra...

ARANTXA ARZA, Lazkao Maizpide Euskaltegian euskara irakasle eta Itsasondoko Udalean kulturako zinegotzi dena Euskadi Irratian lanean hasi zaharregia ere ez da. Poliki egiten omen du, etorria badu aidanez.

MIKEL KASPER ALEMANIAR irakaslea inguruotan dabilkigu. Zumarragan eskolak eman eta Ordizia eta inguruko artxiboetan arakatzan aritu da Karlisdetako Gipuzkoako gerrilaren aztarnen atzetik. Bertako datuak agertzen bide dira.

XABIER MENDIGURENEN "Pernando, bizirik hago oraindiko" antzezlanaren estreinatuko du Deban "Goaz" taldeak. Goaz-eko buru Lukas Dorronsoro ataunda-

Ba al dakizu...?

rra da.

SOFIA LARRAURI ETA JERMAN INTXAUSTI izan dira aurtien Segurako Fandango eta Arin-arin VII Musika Lehiaketaren irabazleak.

"BEASAIN ETA GOIERRI bailadako Industrializazio Prozesua: garai bateko burdinoletatik gaurko industrietara" Beka sortu du Beasaingo Udalak.

HERRI BEREKO LOINATZ Abesbatzak Ejea de los Caballeros-ko lehen saria irabazi du azkenaldian. Zorionak Xabier Sarasola eta koadrila!

"POLTSIKUKO IKUSKIZUNAK" ekintzak antolatu ziren joandako hilean Ordizian. Beasaingo Udalak Euskara Dinamizatzaile postua betetzeko deialdia egin eta dagoeneko postua beteko duenik bada. Ongi etorri.

ERA BEREAN, EHE ETA AEKrekin euskararen gaineko hitzarmenak sinatu ditu gauza jakinetarako. Beti-Bizi Elkarteari parte batean soilik lagunduko zaio hizkuntz-politikari dagokioneko komenioa bete ez duelako kartel eta erredazioetan.

OKERRAK ZUZENDUZ. Idiazabalgo "Benta-txiki" trikitilariari egin genion elkarrizketa bat 23. GOIERRITARRA-n. Pablo Urretabizkaia trikitilaria beasaindarra dela genion bertan, garai bateko egunkari batzuk esandakoetan fidatuz. Bada abaltzisketarra da. "Zepai ere ez zen idiazabaldarra. Historia xuxen jarri ezean, gureak egin du", esan digu Jexux Lete itsasondorak. Barkatu

JOXE MARI TELLERIA segurar margolariak erakusketa zabaldu berri du Zegamako Kultur Etxean aspaldiko partez. Azken urteetako lanak ez ditu erakutsi, ordea. Irrikirik badugu eta horiei ere laister iritsiko al zaie txanda.

Z•M

Gipuzkoako Foru Aldundia

MUSEO • ZUMALAKARREGI • MUSEOA

Ormaiztegi • Gipuzkoa

Diputación Foral de Gipuzkoa

Bisita ordutegia:

Asteartetan: 15etatik 19etara

asteazkena, osteguna eta ostiralean:

10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.

larunbatetan:

10,30etatik 14,30etara, eta 15,30etatik

18,30etara.

Iriarte Erdikoa Etxea

20016 Ormaiztegi- Gipuzkoa.

Tfnoa.: 943-88 99 00

Faxa: 943- 88 01 38



ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa

- LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR
- ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.

Tel. 88 71 26

Faxa: 16 10 77

ITSASONDO

(Gipuzkoa)

GOIERRITARRAK DIRA URBIA-OLTZERA ARTALDEEKIN

Artzain joanak

Gure Goierri malkartsu honek erreka ondoetako zelai eta soro apur batzuk izan ezean, Araba edo Nafarroako lautadetan gertatzen denaren kontra, ez du nekazaritzarako sail egoki askorik eskaintzen. Arrazoi horrengatik, abeltzaintzak (mendi erakoak batibat) indar haundia hartu du gure lurralde honetan: behiak, behorrak eta ardiak izan dira nagusitu diren abereak.

Azken hauek, ardiek alegia, behiari lekua jan egin diote, horretan behi-esneak eta txekor-haragiak egin duten prezio bajeuk zerikusi nabarmena izan dutelarik.

Ardiak ugaritu diren arren -frabiketan lan eginda, baserrietan artalde koxkorak osatu dituzten baserritarrek jarrita gehienetan-, artzain lanbidea, hots, beste lanbiderik gabe bizimodua oso-osoan arditik ateratzen dutenak, gutxitzen ari dira azken urteotan, era nabarmenean gutxitu gainera. Urbia eta Oltzeko belardietan gertatzen dena izan liteke, ezpairik gabe, modu zabalago batean Euskal Herrian gaurregun ardiaren inguruan gertatzen ari diren aldaketen lekuko.

• Artzain/artalde gutxiago, ardi gehiago.

Pentsa liteke beste aldera beharko lukeela izan, hau da, artzain kopurua gutxitu ahala ardi-buru kopuruak ere beherantz egin beharko lukeela; ez da hori gertatu, ordea. Arrazoia, berriz, nabarmena: artzain bakoitzak, edo beste era batera esanda, artalde bakoitzak ardi gehiago dauzka orain lehen baino. Orain 30-40 urte artalde bakoitzean, batzuetan, 150 ardi baldin baziren, orain 400era gerturatzen da kopuru hori. Honek, Urbi eta Oltzen 9 artalde nagusi dabilzala kontuan izanda, eta hauei behorrak eta, tartean behiak eta ahuntzak ere gainera-



Urbiako artzainak auzo-lanean Oltzeko Joxe Mariren artaldeamoztu ondoren.

tu ezkerro, sail horietako bur askotxo dabilela dakar ondorio gisa. Bizitzeko moduko jorrala aterako badute, ordea, jarri egin behar ardiak, ehun ardiko artal-dexar batekin jai bait dago orain familia osoa mantendu ahal izateko.

• 9 Artalde.

Arestian aipatu dugu 9 artalde nagusi aritzen direla larrean sail hauetan maiatzetik urria bitarte, 8 Urbian eta bakarria Oltzen. Arbelargo saroian bi dira, Emiliano eta Jexux Etxezarreta anaienak. Lanbitakoan bakarria, Fermin Arrietarena. Erdiko saroian Pedro eta Ixidro Legorburu anaiek dutena eta Laskolatzakoan beste 4: Joxe Goibururena, Joxe-Luis Uribeberriarena, Andres Zufiriarena eta Joanito Etxezarretarena. Oltzekoa, berriz, Joxe-Mari Oiarbiderena. Artzain hauen izen-abizenei, ezkonduenei bai behinik behin, berauen andre eta seme-alabenak ere gaineratu behar zaizkie, askotan artzainak berak ainaxe lan egiten bait dute, gehiago ez denean. Urbiko amona ere aipatu nahi nuke bereziki, Anttoni Oiarbide, Oltzen jaioa izan arren orain Jexux bere semearekin eta honen emaztea den Lourdesekin Arbelarren bizi dena. Oraindik urte asko ez dira artzaintzari utzi zioten Arana anaiak, Joxe Martin eta Atanaxio, eta Pilar Oiarbide ere ez ditut aitatu gabe utzi nahi, fondako Martin, Gregori, Miel eta Juxta bezalaxe.

Aipatzekoa da gaurregun Urbia eta Oltzen artaldeak dituzten artzain guztiak goierritarrak direla, Zegama, Gabiria, Idiazabal eta Segurakoak hain zuzen ere, beste garai batzuetan Partzuergokoak diren arabar herrietakoak egon izan diren arren.

• Aldaketa sakonik ez.

Artzainaren lanak ez du aldaketa handirik izan antzinako garaietatik gaur egun arte. Ardiak larreetara bideratu, artaldeak zaindu, ardiak jatsi, gaztaia egin, ardiak moztu eta markatu,... lanik nagusienak era beretsuan egiten dira goilarreetan orain ere. Beharbada tresneria mailan gertatu da aurrerapenik nabarmenena, zurezko kaiku, apatz, zumitza ta malatzen ordez inoxidableak erabiltzen dituzten orain. Esnea hozten denean, berriz, butanoan berotutako uretan sartuta berotzerik badago, ontzi barrean goritutako harriak-eta sartzen ibili beharrean.

Hala eta guztiz ere, lanak egiteko erak ez bezala, artzainaren bizimoduak izan du aurrerakuntza ederrik. Motoredun ibilgailuak sartu zirenetik maiz jaisten dira beheko herrietara janari nahiz botika bila, baita inguruko perietara gazta eta arkumeak saltzera ere. Ondo asko daki hara sarri igotzen denak, kaleko jatetxe askotan baino hobeto ematen dutela jaten han goiko txabola-tabernetan. Argindarrik ez bada ere, butanoa nahikoa

izaten da sua eta argia egiteko. Iturriko ura, berriz, aurtengo udan martxan izango da seguruenera, depositoak eta tuberiak iaz sartuak bait dituzte.

• Etorkizun beltza

Tradizio haundia eman da orain artean ia beti artzain familetan. Urban hazitako askok jarraitu diote artzantzar han bertan edo beste mendiren batean. Orain dela 40 urte 26 artzain ziren lekuan orain 9 besterik ez izateak ere zezaker esan nahiko du ba seguruenera! Garai hobeak ote ziren haiek artzaintzat? Hori baieztatzerik ez dago; bai, ordea, orain artzantzatik bizi direnek etorkizuna beltz ikusten dutela. Alde batetik, orain arte jasotzen zituzten diru-laguntzak kendu egingo ote dizkieten hotsa dabil, Europa famatu hori dela medio. Bestetik, artzantzak sortzen dituen produktuek, gaztaiak izan ezean, beherrantz egin dute prezioan, lurra jotzerai-

no zenbait kasutan, artilea eta ardi edo arkume-larrua konparaziotarako. Gaztaiarekin asmatzea zaila izan ordea! Batzuetan esnea hoztu egin delako, besteetan gatzagi gehiegi eman ziolako, hego haizeak puzten ez dituenen jakina... Bata oso ona eta haren ondokoa erdipurdikoa izatea ez da hain harritzekoa izaten. Gainera lana ere izugarri ematen du gero ateratzen den diruarekin konparatu ezkeror.

Egoera honen aurrean gazteak hartzen ari diren joerak ez luke harritzekoa izan behar, lantoki batean arituta hilaren bukaeran soldata izateak ematen duen se-



Pedro eta Ixidorren familia Zegamako Eguzkitze baserrian; atean eguzkilaria.

gurtasunak ez bait du parekorik Urbi eta Oltzeko puntetan dabilen haizearen prexkurarekin. Dagokionak hartu behar ko ditu neurriak, gizarte aurreratu honetan gure arbasoen garaietatik bizirik irautea lortu duen langintza eder hau desagertu ez dadin.

Andoni Aizpuru

LOINAZ Taberna — Jatetxea


BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



Kirol jantzieta espezialistak

kimi kirolak




Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18

20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA



JATETXEA

☎ 885255

DONOSTIA

ALTZAGA

Itsasondo Ordizia

GASTEIZ

Jatetxea



Gudarien Etorbidea - Tel. 88 39 60
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



SEGURO TALDEA
ZURICH-VITA-HISPANIA

GURUTZ BARANDIARAN IRASTORZA

ESTEBAN LASA, 7-1^oC Tfnoa: 88 88 92
20200 Beasain (Gipuzkoa) Faxa: 88 88 92



MUEBLES
Ordizia
HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50



IRVROK S. L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54

OLABERRIA

RAIMON MUSIKALA

SANYO BANATZAILE OFIZIALA

Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURRETA, Z/G.

Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN

GURPIL
BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51

Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03

20200 B E A S A I N



ZABALE

OKINDEGIA
DIETETIKA

Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MUJIK AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi

tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km

Tfna: 88 74 00 / 88 74 04

Fax: 88 79 52 BEASAIN



KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu askotarikoak
ordua aurretik eskatuz. Tfnoa: 88 57 50 - 88 5854

Nafarroa etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

BEASAINGO
TABERNARIEN
ELKARTEA

Borondatea duzue giltzarria, euskaldunberriok!

Lehenengo batean, trena hartuta bidaia bat egin beharrean gertatu nintzen. Pareko eserlekuan aurrez-aurreko solaskiderik ez eta, bagoiko ahotsei erne jarri ziren nire belarriak. Batzuen eta besteen hizpideei gogo eman nien, baina zailtasun handiz eta nola-hala mintzatzen ziren gazte batzuren hizketa-gaiak eman zidan atentzioa batipat. "Eske euskeraz oso zaila da", "Nik ez dut hikakoa ulertzen", "Nik ez dakit gu ikasiko dugu" eta antzeko esaldi agramatikalak botatzen zizkieten elkarri, beren amets, kezka eta desioak aiereratuz. Nekez eta tikili-takala aritu arren, barra-barra ari ziren euskaraz, gogotik. Euskara ikasi eta euskaldun bihurtzeko sekretuaren bila zebilen beren ihardunak aspaldiko zirrara gazi-goxoa berriro zidan. Izan ere, behingo batean ni neu ere, alde edo molde, trenkide euskaldun-berri haiek bezalatsu arituko nintzen euskaraz, trakets samar. Haiek ere, nik neuk egin ohi nuen erara, hizkuntz hau ikasteko sekretua eskatzen zuten deihadarka.

Berezko trebetasun eta erraztasunari esker, inor gutxi ikas ditzakeela hizkuntzak zioten euskaldungaiak, horretarako, euskara zein bestelako hizkuntzak ikasteko, inongo Izpiritu Sainduak norbaitzuei bakarrik emango bailien halako dohain berezi bat. Nik, ordea, euskal kanta ezagunaren hitzak neure eginez, "poeta ez naizenez gero, ez dut zerurik espero" pentsatu nuen une hartan. Eta iruditu zitzaidan, zerutik ez dator kiola inori ezer ikasteko dohainik, inor ez dela jaiotzen berezko jakintzaz horniturik alegia. Une hartantxe, 75.ean X.Kintanak eta J.Tobarrek argitaratu zuten "Euskaldunberriekin euskaraz" liburuaz ere oroitu nintzen. Aipatu liburuan punta-puntako zenbait euskalduni (euskaldunberri) egindako elkarrizketak eskaintzen dira, eta, norberak, besteak beste, euskara non, nola eta zein bide eta metodoz ikasi zuen azaltzen digu. Gogoratzen naizenez, liburu irakurri eta gero haxe izan zen nire ondorioa: borondatea da euskara ikasteko zimentarria. Saiatzea besterik ez da kontua. Ez dago ikasterik liburuaren gainean begiak errez ordu luzeak eman gabe. Ekin eta ekin, horixe da sekretu bakarra. Etsi gabe eutsi. Izan ere, Lafitte, Santamaria, Mirande, Txillardegi, Krutwig, Peillen edota liburuan azaltzen diren gainerrako guztiek ez bait digute hitz erdirik ere esaten hizkuntzak ikasteko berezko iaiotasunez.

Baina, trenkideon hizpideaz baliaturik, hizkuntz-kontuan ezezik, bizitzaren beste es-

parru guztietan ere, ametsak gauzatu eta zernahi den hura lortzeko lehengaia borondatea dugula egin nuen amets. Eta, halaxe, Demostenes greziarraren harako hura irudikatu nuen. Leiendak dioskunez, hitzak eba- kitzeko zailtasun nabaria zuen Demostenesek, eta, hura gaingitu ahal izateko, harritxintxorak ahoan erabiliz egiten omen zituen deklamazio ariketak. Beharbada harriena ez da segurua izango, baina, duda izpirik gabe, zirenak eta ez zirenak erabiliko zituen hain hiztun egoki eta hizlari aparta izatera iristeko. Bistan denez, burdinazko borondatea izango zuen maisu greziar ospetsuak.

Historia-zertzelada horretatik gaurko egunetara egin zidan salto irudimenak, eta, treneko nire ametsen, Ana Maria Matutek behin esandako hitzak oroitu nituen: "Hiztun pata- tala nintzelako hasi nintzen idazten. Titikitan oso hiztotela nintzen". Nork pentsa zezake- en hizketan gaizki aritzen zen neskato hura noizbait idazle handi bat bilakatuko zenik? Borondate sutsu batek egingo zuen miraria neskatoarengan noski.

"Baina ikasiko al dugu ondo euskaraz?" edo horrelako zerbait esanez jarraituko zuten trenkideok, baina jadanik nik ez nien adit- zen. Ordurako guztiz murgildurik nengoen nire ametsen, eta, ametsak, bizitzako edo- zein zailtasuni aurre egiten ikasteko beste adibide paregabe bat eskaini zidan, Asun Balzolarena hain justu. Izan ere, egunotan irakurri dudanez, aurtan direla 27 urte auto- istripu latz bat izan zuen Balzolak. Haren ondorioz, bizkarrezurra hautsi eta bizkar- muina bera ere ia erdibituta geratu zitzaion.

Joandaneke 27 urteotan, hutsik egiteke, errehabilitazio- ariketei ekin behar izan die. Gaur egun oinez ibiltzeko gauza da, bastoiz lagunduta, zabuka eta balantzaka dabilen arren. Hala ere, zailtasunak zailtasun, ez zen etxeko zokoan lo geratu. Istripuaz geroztik, mundu-korritu ugari egiteaz aparte, nor- tasun sendo bat erai- kitzen jakin izan du. Bera bait da, inor izatekotan, European egun dauden liburu- ilustratzailek onentsuenetako bat. Asun Balzolak nor izateko (eta bospa- sei hizkuntz jakite- ko) egin behar izan zuen ahaleginarekin



euskaldunberriena alderatu, eta zer da ba hizkuntz bat ikasi behar izatea? Hutsaren hurrengo baino ez.

Irudimenak saltoka-saltoka zerabilkidala, 1.561. urtera joan nintzen, eta balizko El Dorado aurkitzera zihoan itsasuntziaren ka- pitaina ikusi nuen aurrez-aurre. Treneko ametsen bezalaxe orain ere Pedro de Ur- sua bera dut begien aurrean, eta espedizio- ko kapitain hori honela ari zait hizketan: "Zertarako balio du bizi izateak, baldin eta bizitza justifikatzen duen helburu bat ez ba- dugu? Aurkituko dugu El Dorado eta jabetu- ko gara Peruz". Esaldi historiko horrek Pe- dro de Ursuaren borondate izugarria islat- zen du.

El Dorado gure hizkuntza eta Peru gure Euskal Herria izan ote zitezkeen irudikatzen ari nintzen unean, trenaren triki- trakak nire ametsa eten eta errealtatera ekarri ninduen. Hantxe nituen behin berriro euskaldunbe- rrioren eztizko ahotsak, eta, orduan, ixilkako mezu ozen bat bidali genion elkarri, "ez da- go ezinik, ez dago ezinik... euskalduna izan zen herri hau euskaldun bihurtuko dugu berriro ere" garrasika esanez.

Xabier Gartzia

OSASUN

Belar eta dietetika denda

Naturopata

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

Txekeoa Udal Euskaltegiei

Aurreko GOIERRITARRAN Goierriko Goiztiri-AEK Euskaltegiari errepasoa eman bagenion, Ordizia eta Beasaingo Udal Euskaltegiei iritsi zaie txanda orain. Euskaltegien historia, gaur egungo egoera, irakaskuntza aldetiko aurrerakadak eman duten, erakusteko eren, ikasleen jarrearen eta Institutioekiko harremanen eta interakzioen gaineko galderak egin dizkiegu horien arduradunei. Balorazioak ere eman zaizkigu.

ORDIZIAKO BARRENA EUSKALTEGIA: Eskaerari erantzuteko prest

Ordiziako Barrena Euskaltegia berez 1982. urtean sortu zen eta garai hartan Udalak euskalduntze eta alfabetatze lanak Goierriko Euskal Eskolaren gain uztea erabaki zuen. 1988. urtean berriro ere Ordiziako Udalak bereganatu zuen euskaltegiaren ardura. "88. urteaz geroztik aurrera lau irakasle ari gara lanean ikasturte osoan zehar, lau ikasturte hauetan, batzaz beste 75 ikasle izan ditugu matrikulaturik", dio Ane Agirre, Barrena Euskaltegiako zuzendariak.

Bere ustez, aipagarria litzateke orain urte batzueuskaltegiatara zetorren eta orain datorren ikaslegoaren aldaketa. "Lehenengo ikaslegoa euskararekiko konprometituagoa zen; hots, euskara bera helburu zuen horietakoa. Bere gogoz etortzen zen inongo kanpo-eraginak baldintzatu gabe. Gaurko ikaslegoa, nolabait esateko, beharturik dator, gero eta behar handiagoa somatzen du: instituzio, lan baldintza e.a. sortutakoa, alegia.

Eguno ikaslegoaren ezaugarri batzuk esanguratsuak dira. Gero eta ikaslego gazteagoa etortzen da, "batez ere ikasketak erantzen diren ari diren ikasleak, gerora begira euskararen beharra izango dutela ikusten baitute".

Bestalde, iaz Transmisio Kanpaina burutu zen. Eskoletan ere eraman zen aurrera, eskoletako irakasleek horren beharra somatzen zutelako. Hori horrela izanik, guraso gazte talde batek ekin zion euskara

14 Goierritarra

ikasteari eta horretan jarraitzen dute.

Lehen esan dugun bezala 1.988-89 ikasturtean Ordiziako Udalak bere

gain hartu zuen euskaltegiaren ardura. Udalak HABE-rekin egindako hitzarmen baten baitan dihardu Euskaltegiak, behin-behinekotasunez, aurrerantzean beste irtenbide egokiak bat eman arte. "Aurrera begira Beasaingo Udal Euskaltegiarekin amankomunitate bat sortzeki ongi deritzogu elkarlanean betiere zerbitzu hobek eskaini baitaitezke", dio Anek. Azken urteotan euskararen irakaskuntzaren aurrerakada nabaria izan da nahiz irakasle nahiz metodologiaren aldetik. Irakasleen arteko urteetako elkarlanak eta beraien berzikiak aurrerapen nabarmena ekarri dio euskararen irakaskuntzari. "Era berean bigarren hizkuntzaren ikaskuntzari dagokionean ikerketa lan sakonak burutu ahal izan dira. Honek euskarari emaitza onak ekarriko dizkio noski. Metodologiari dagokionean ere hasera batean batez ere metodo deduktiboa erabiltzen zen gehienbat, ondoren guztiz kontrakoa, hau da induktiboa erabiltzea izan zen joera. Egun bai bata bai bestea erabiltzen dira hizkuntzaren ikaskuntza erraztea eta hizkuntza hori ikasleak bereganatzeko orduan irakasleak eskura dituen unetan metodo bat egokiagoa gerta liteke eta besteetan aldiz bestea".

Eskeintza zabala izan arren, ikaslegoaren beharrek mugatzen dute. "Berez guk aukera guztiak eskeintzen ditugu, goizez, arratsaldez, gabez nahiz egu-

nean 2, 3 edo 5 orduko ikastaroak, baino gureganazuzentzen den ikasleak ezartzen dituzte azkenean erritmo eta ordutegiak". Honela arratsalde eta gau partean eskatzen dituzte klaseak gehienbat. Eta Euskaltegiak eskatzen zaionari erantzun behar izaten dio. Jendeak lana edo ikasketak amaitzen dituenen edota haurrak eskolan dauden orduak aprobetxatzen dituzte euskaltegiaren etortzeko.

"Ordiziako Udalarekin harreman zuzena daukagu hasieran esan bezala, une honetan Euskaltegia, Udalak Euskara Zerbitzuaren bidez herriari eskeintzen dion zerbitzu bat bait da". Eta ekonomi alorrean ere, Udalaren menpe dago.

Eguno Datuak

Matrikulatutako ikasleak: 75;

Ikasleen %57,57a langabeak dira, horietatik 19 ikasleak.

Ikasleen %42,42a lanean ari dira.

Adinari dagokionean berriz, gehienak 20-35 urte bitartekoak dira

Ikaslegoaren ikasketak

%10,6 Goi-mailako tituluduna.

%22,7 Erdi-mailako tituluduna.

%30,3 UBI-batxilergo edo lan-Hezi.I

%34,8 Eskola Graduatua edo Eskola Agiria



BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA: Lanaren eta seriotasunaren irudia

**87.eko Irailean ireki zituen bere ateak
Beasaingo Udal- Euskaltegiak eta 92.eko urte
hau egokia suerta daiteke balorazio bat
egiteko.**

Hasera batean oposizio bidez lau irakasle sartu ziren, idazkaririk ere ez zuten, Udaletxeko administrari batek laguntzen zien. Gerora hartu zen administrari bat ordutegi erdiz lan egiteko. Bertako zuzendari den M.Paz Martinek dioenez, "87.ean hutsetik hasi baginen ere, gaur egun esan daiteke Euskaltegia dexente hornitua dagoela, bai tresnei, bai liburu eta bestelako materialei dagokionez". Bestalde, irakaslegoaren aldetik izugarritzko lana egin da materialaren prestakuntza eta osaketan.

Metodologia aldetiko aldaketa handia izan da, metodologia komunikatibo aldetik jo dute. "Didaktika eta Pedagogia alorretan, gure aurreratzeko beharrak eta ikasleen beharrak eta interesak eraginda, salto handia eman dugu, eta lehengo joerari utziz, Metodologia Komunikatiboan murgilduta gaude momentu honetan, programazio eta material egokiak prestatuz eta bide berriak ikertuz eta saiaturaz. Esan behar da, gaur egun ikasleari begira, bi premia lotzeko beharra ikusten dela: ikasle bakoitzak dituen interesak eta hutsuneak batetik, eta komunikatzeko behar duen giroa eta pres-

takuntzataldearen barruan bestetik, bien artean bait dago ikasleak komunikaziorako behar dituen elementuen batuketa eta oreka".

Aldaketa pedagogikoa honen ondorioz hurbilena ikaslegoa gustora ikustea izan da, antolatzen diren ekintzetan eta proiektuetan aktiboki parte hartzen dutela, eta euskara erabiltzeko prestaturik, hiztegia eta espresio komunikatiboari garrantzi handia ematen diotelarik. Hasieran inork gutxik ezagutzen bazuen ere, gaur egun, bere arduradunek pentsatzen dute jendeak badakiela non eta nola eratua dagoen Udal- Euskaltegia.

Ikaslegoak erritmo ezberdineko ikastaroak aurkituko ditu bertan. "Haseran 2 orduko erritmoko ikastaroak soilik ematen bagenituen ere (udako ikastaro intentsiboa salbu: 5 ordukoa), gaur egun ikastaroan zehar ere 5 orduko zenbait talde izan ditugu eta badiugu, gehienbat IRALEren bidez osaturiko taldeak". Hizkuntz eskakizunak direla eta administrazioko langileak, azken hauek.

	87-88	88-89	89-90	90-91	91-92
IKASLE-KOPURUA	106	101	119	108	124
				72	73
TALDE-KOPURUA	8	7	7	9	9
				6	6
IRAKASLE-KOPURUA	4 1	3 1 (ordutegi osokoa)	4 -	4 5	4 5
ASISTENTZIA %	78,90	70,65	65,61	67,61	77,52*
				81,77	79,92*
BAJAK	20	23	38	27	10*
				13	8*
ALTAK	18	19	14	15	20*
				4	9*
URRATSAK	1/4/6/ EGA/ALFA	1/3/6/ EGA	1/2/3/5/ EGA	1/2/4/5/ 7/ALFA/ EGA	1/2/4/6/ 8/ALFA/ EGA
				1	1/2/ALFA

ez dira Beasaingoak bakarrik izaten baizik eta inguruko herrietako Udaletxeetakoak ere bai. Honek, jakina, dinamika berri bat ematen dio Euskaltegiari", dio M. Pazek.

Jende gehienak 2 ordutakoak hartzen ditu. 3 eta 5 ordutakoak urritik-otsailera eta otsailetik-ekainera luzatzen dira. Otsailean irekitzen da matrikula eta orduan hurbiltzen da EGA ikastaroaren bila datorren jendea, alfabetatze taldeak sortzen direla.

Euskaltegiaren egoerari dagokionez esan, ikaslego kopurua mantendu egin dela urtez-urte, "azkenengo bi urteotan ikasle kopurua handitu egin da gainera, Transmisio-Kanpainaren eraginez". Taldeak osatzeko garaian zailtasun batzuekin aurkitzen dira, jendea gero eta beranduago inguratzen bait da euskaltegi- matrikulazio garaian eta taldeak osatzeko gutxieneko kopuru batzuek eskatzen zaienez, azken ordurarte ez dute jakiten taldea osatuko den ala ez.

"Ikasleen motibazioari dagokionez, denetik ikusten da: zenbaitzuek gustatzen zaielako etortzen dira euskara ikastera, besterik gabe; beste batzuek lana errazteko lortuko dutelakoan EGA agiriaren bila, e.a. Asistentzia aldetik, ikasle gehienak beste hamaika ekintza, e.a.-etan sartuta egotea gure kalterako da", dio Euskaltegiko zuzendariak.





Gerora begira, sektore ezberdinetan eragiteko beharra ikusten da, horretarako programazio eta eskeintza berezien premia ikusten delarik. "Bestalde, herri-mai-

Udaletxe mailan, Euskara Departamentuarekin lotura nahikoa estua dute, lana errazten duela horrek. Izan ere, Euskalte-

lan zeozer egitea interesgarria litzateke euskara sustertzeko, baina hor Udalak eta Euskara Batzordeak planifikatu eta koordinatutako plan orokor baten barruan sartzeari litzateke onena".

gia martxan jartzen Departamendu horrek lagundu zuen. Funtzionamendu aldetik martxa hartu duenean Euskaltegiak nolabaiteko autonomia ere lortu du. Baina, orain ere badute laguntza".

Esan liteke, bukatzeko, "urteen poderioz gure Euskaltegia sendotzen ari dela, eta bere garrantzia hartzen, Beasainen nahiz inguruko herrietan ere". Beren lan eta seriotasunaren irudia (izaeraren isla da) argi eta garbi zabaltzen hasi dela, alegia.

Rosa Amundarain
Nekane Altuna
Loinaz Agirre
Jon Arano

GOIERRITARREN EUSKARA MAILA

GOIERRITARREN EUSKARA MAILA (1986KO ERROLDAREN ARABERA)

HERRIA	BIZTANLEAK	EUSKALDUNAK	IA-EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK
ABALTZISKETA	286	285	1	--
ARAMA	158	141	2	15
ATAUN	1.814	1.753	15	46
BEASAIN	12.141	5.760	1.211	5.170
EZKIO-ITSASO	585	540	25	20
GABIRIA	452	445	2	5
GAINTZA	123	123	--	--
IDIAZABAL	2.028	1.766	173	89
HIRUERRIETA	644	612	9	23
ITSASONDO	776	634	82	60
LAZKAO	5.128	2.679	724	1.725
LEGORRETA	1.588	1.110	163	315
MUTILOA	191	177	6	8
OLABERRIA	1.255	518	235	502
ORDIZIA	9.265	4.442	1.669	3.154
ORMAIZTEGI	1.264	1.026	50	188
SEGURA	1.363	1.145	157	61
ZALDIBIA	1.676	1.400	96	180
ZEGAMA	1.430	1.312	39	79
ZERAIN	226	224	1	1
GUZTIRA	42.393	26.092	4.660	11.641



BASTAKANA
TABERNA

Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

BODEGON GOIERRI JATETXEA

Tlf. 88 00 00
Kale Nagusia, 20 BEASAIN

Erosle Ahizpak

*Aukera osoa
Zure etxe ondoan*

Nafarroa Etorbidea, 45 BEASAIN



ELOSEGI-ARACO Ardotegiak

OLABERRIA-LAGUARDIA



- * ETXEBIZITZAK SALGAI ITSASONDON
- * SALNEURRI OSO INTERESGARRIAK

OTEGI

ERAIKUNTZA OROKORRAK

- * 100 ETA GEHIAGO M²
- * TXIMENETA, ANTENA PARABOLIKOA,
BEROGAILU ISTALAKUNTZA EGOTIRUK, E.A.

Tfnoa: 88 49 36 ITSASONDO



SOLOZABAL
AUTOESKOLA
PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia

- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 — ORDIZIA

EROSKI KAFETEGIA

Pintxo hotz eta beroak
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31 ORDIZIA




Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
Teléfono: 80 60 66

LEGORRETA (Guipúzcoa)



- Urdaiazpiko eta hestekien
banatzailea
 - Liburu eta konpakto denda
- Urdaneta, 52 Tfnoa.: 88 06 40 ORDIZIA

Udako ikastaroetan Maizpidera joan eta goiz goizetik lanean ikusten genuen Dionisio; gaueko jaialdietara joan, Areria zinemara edo, eta azken ordura arte han eta hemen ibiltzen zen. Inoiz Zuberoara pastoralara ikustera joan, eta hantxe. Orain, GOIERRITARRA-ren 25. ale monografikoa aitzakia dela eta, Gasteizera jo dugu berarekin hizketan egitera.

Dionisio Amundarain

optimismoari

txoko bat eginez

G.- Euskararen inguruko gauzetan buru-belarri sartu zinenetik urte mordoska pasa da. Tartean euskaltzaleen gogoak ere itxaropenetik etsipenera pasa dela diote. Zer iruditzen zaizu?

D.A.- Erantzuna oso zaila da; hala ere nireak eta nire inguruan ibili diren batzuen prozesuan, lehendabiziko etapa bat ikusten dut, gazteorarekin konparatuko nukeena, zalapartakoa. Utopi moduko zerbait zen (2000. urterako Goierri euskaldun, e.a.) eta guk benetan hala sentitzen genuen. Lehen helduaroa edo etorri zen geroago; orduan hankak lurrean jartzen hasi ginen. Frankismoaren garaitik beste honetara aldatu ginen eta borondate bat edo ikusten zen, bai politikoengan, bai erakundeetan (legea, HABEren sortzea...), eta horrek halako errealismo batera "jaiste" eragin zuen.

Eta gero helduaro aurreragokoa etorri da. Gaur gehiago erlatibizatzen dut herri mugimendu hori, eta erakunde mugimendua batez ere. Baina, dena den, orindik badaukat barruan halako optimismo bat: euskarari eutsiko zaiola, ez berehalako batean, baizik luzarora, euskara berreskuratuko dugula.

G.- Egingo al zeniguke Goierriko egoeraren diagnostiko orokor bat?

D: Lehendabizi esan behar da, Goierri, euskarari dagokionez, toki pribilegiatu bat izan dela eta dela. Bertan jende dinamikoa sortu da, eta euskalduntasun beste arlo batzuekin lotua izan da: kulturarekin, ETArekin sorrerarekin... Hortaz, berezko giro euskaldun bat eta, horretaz aparte, erreflexiozko dinamismo bat ere izan da. Hori izango litzateke oinarrian dagoena. Orain, nola ikusten duzan? Frankismoaren bukaera halako ilusio batzuk sortu ziren, eta iruditzen zait haiek gaurko gizartearen lausotu egin direla, desilusio bihurtu direla, alegia. Beste fenomeno bat ere ikusten dut, baina Euskal Herri guztian, hau da, gazteriaran arazoa: gazteriak beste desilusio modu bat izan du, guk izan ez genuen bezelakoa; "Gizarte honek ez nau betetzen" esan eta halako pasotismo batera jo da, dena hankaz gora jarri nahian eta... Hor bilatzen dut nik arrisku-

rik haundiena. Halaz guztiz, gazteen artean ere badira txispa batzuk han eta hemen, eta horrek optimismoarako bidea ematen dit.

G.- Etorkizunari begira, orain artekoa gogoa izanda, nola ikusten dituzu euskalkia eta euskara batuaren arteko loturak? Batua nahiko onartua dagoela, euskalkia erreibindikatzeak ordua iritsi da?

D: Hori planteamentu faltsua dela iruditzen zait. Akordatzen naiz ni neu ere euskara batuaren alde jarri nintzela, suertez, Arantzazuko biltzarre hartan (1968). Han batuaren aldeko aukera hura arrazoiketan oinarritzen zela ikusi nuen, eta aukera hori gerora ere berretsi egin dut. Euskara batua niretzat ez da arazo ortografikoa; ez da deklinabide hutsa; ez da lexiko hutsa, horiek ere bai; niretzat estilo kontua da, hau da, hango eta hemengo gauzekin euskara aberatsago eta konplexuago bat egitea. Bizkaierak, xubererak zer esan handia izan beharko lukete. Eta nik uste dut



hori dela planteamendua, eta ez euskara batuaren izenean halako laboratoriorikoa hizkera bat saltzea, beharbada oso matematikoa izango dena, baina ez herri kutsurik, ez erabilera kutsurik ez duena... Hori eta hemen, herriak erabiltzen duena izan behar da. Noski, gauza diferentea da, esate baterako, euskara batu hori liburu zientifiko batean ikusi ala egunkarian ikusi; idatzia eta mintzatua ez dira sekula gauza bera izango, baina idatziak mintzatuan oinarritu behar du.

G.- "Goierrri euskaldun" hura bideratzeko, zer nolako premia eta betebeharrak nabarmenduko zenituzke?

D.- Batetik, arazo nagusia bezala, heldu jendearen artean lanari optimismo handiagoarekin heldu beharko litzaiokela ikusten dut, kultur aldeetik esan nahi dut, eta hain zuzen ere pertsonak bere burua garatzeko. Uste dut imajinario pixka batekin pertsonak bere burua jantzi joan behar duela. Pertsona, hartzeko bezala emateko ere bada, eta horrela lortuko luke bere heldutasuna. Noski, hori maila indibidualen ezin da egin, hori koordinatu egin behar da. Alde horretatik elkarrekin, daudenek, zer esana izan beharko lukete, gastronomia hutsean gelditu gabe. Baina elkarte horientzat ere, erakunde publiko direnei, udalei batez ere, arnasbide batzuk, aliziente batzuk eskaintzea eskatuko nieke. Eta baita konfidantza gehiago ere, bai erakunde pribatuai bai indibiduoari.

Euskara bakarrik ez da ezer, euskara zerbaitetarako dugu. Identifikazio tresna bat da, bizitzan erabiltzeko izan behar du...; lanetik, esate baterako, maila ekonomikoan egiten diren eskakizunetara mugatu gabe, langileek beren burua euskaraz protagonista egiten saiatu beharko lukete.

G.-Eta komunikabide mailan, nolako egoera ikusten duzu?

D.- GOIERRITARRA bera hor dago; ezin esan gogo-betekoa dudarik; gehienbat, arazo ekonomikoak murriztapenak daukate egoera honetan. Mitismo hutsean erori gabe, ongi ikusiko nuke "Arrasate Press"-en bidea hartzea. Zergatik ez indartu? Horregatik esaten nuen lehentxeago erakunde publikoek konfidantza gehixeago eman beharko lieketela erakunde pribatuai. Telebistarena zailago ikusten dut. Jendeak, ahal duen neurrian, gauza txikieta eta handiagotzen esku hartu beharko lukeela uste dut; bestalde, dauden gauzei ez zaie utzi behar bere kasa bejatatzen.

Nik dagoena potentziatuko nuke, optimismoz eta lan giroz.

G.- Gasteizen gaudela, zer nolako gogoetak egiten dituzu Euskal Herriari begira? Araban UA sortu dela eta Buesaren deklarazioen oihartzuna oraindik airean, zer esango zeniguke?

D.- Oso oker ez baldin banago, Araban B eta D ereduaren matrikulazioa hazi egin da. Hori oso esanahitsua da. Neretzat, beste kezka bat hauxe da: oraindik ikastetxe pribatu asko dago. Bizkaian batez ere, eta horietan euskarak duen presentzia oso murrizta da. Bizkaia dugu E.H. guzti-ko probintziarik jendetsuena, eta beraz, Bizkaia euskalduntzen ez badugu alferrik gabilta. Gero,

Euskara batuak ez du zertan izanik laboratoriorikoa hizkuntza

pixkana-pixkana belaunaldiz belaunaldi aurrera jotzea legoke.

Beste alderdi kezagarri bat aipatuko nuke: gaur bat da eskoletan B eta D ereduak ematea, baina beste bat erabilera. Goierrin bertan, ikastola batzuetan jendea kanpoan ere euskaraz aritzen da; beste ikastola batzuetakoek, berriz, kanpora atera orduko erdarara jotzen dute. Hor bado zerbait aztertu egin beharko litzatekeena. Irakasle asko eta asko, klasean euskaraz arituko badira ere, gero beren artean erdaraz aritzen dira, eta noski, pertsona horrek zer motibazio ezarriko dio bere eskuletatik pasatzen den jendeari? Gizarteak irakasleari hori ere eskatu egin beharko lioke: euskaraz irakastea eta euskarari buruzko jarrera ere bai. Eta gizarteak nolabaiteko armak edo bideak izan beharko litzuke hori betetzen ez den kasuetarako. Esate baterako, irakasle batek ETArekin alde propaganda egingo balu, seguru asko segituan ez dakit zer egingo litzaiokkeen. Eta euskararen kontra ari direnei edo alde egiten ez dutenei, zergatik ez? Hori gizartearen esku dago. Nik, alde horretatik, balore etikoak sustatu beharra ikusten dut.

Patxi Zubizarreta

-Goierrri, harez ala gabe?

-Euskaltzaindiak gabe erabakita dauka eta nik gabe idazten dut. Hala ere, "Goierrriko Euskal Eskola" izen propio bezala "h"-ez idatzi guren eta hala segitzen du.

-Goierrin, zein txoko duzu gustokoen?

-Txokorik politena, helikopteroz joan ahal izanez gero, Igaratza, edo bestela Goarda Etxetik oinez joango nintzateke.

-Lazkao.

-Ni bizi naizen herria.

-Gasteiz.

-Herri hotza, klimaz eta bestela ere bai, giza giroz, nahiz eta integratzeko aukera gehiegirik ez dudana izan.

-Zer liburugamenduko zenik GOIERRITARRAren irakurleei?

-Orixeren "Jaingoaren bila", ez edukiagatik, euskararen erabilerragatik baizik.

-Biblia euskaraz: ametsa, beharra...

-Ametsa izan nuen garai batean, gaur errealitatea bihurtzeko bezperan ikusten dut.

-Euskara salbo ikusi arte ez duzu bizarramendu?

-Bizarra moztea ez dut horrekin lotu. Gehienbat, zera da: Israelen egon ginenean apostu bat egin gurela, ezetz utzi eta baietz utzi, eta harez gero, ba halaxe.

Patxi

ERRETEGIA

Tfnoa: 80 15 75

LIERNI

LEIAR

KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarraztea - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tlfn: 88 88 24

BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tlfn: 88 60 70

BEASAIN

UTOESKOL
ARALAR

Urdaneta, 64. Tel. 881651. 20240.ORDIZIA (Gipuzkoa)

GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



MUJIK
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Masajista
Tituludunak

Minaz ez egon


axis

Aurrez
dei
ordua
hartzeko

KIROMASAIA

Goierrri kalea, 6 behera - Tel. 16 04 47 20240 ORDIZIA

IBAI - ONDO




ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta Erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

B i O K , c . b .



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

Ezaguna da Marijoxe Madariaga lazko-tarraren bertsozaletasuna. Karrerako 1. urtean deskubritu zuen zer zen bertsoa. Baina ez goaz bertso-kontuetaz aritzera. Donostiako Ikastola batean lan egin zuen lehen, eta duela urte t'erdiz gero, Goiherriko Euskal Eskolaren liberatua dugu.


Hizkuntza etengabe landu beharrezko zer bait

bezala dakusa Mari Joxek, bertsoa bezalaxe. Euskara lantzen ari da etengabe GEE Kultur Elkarteak joan direneko urte askotan. Lehenagokoak lehenagoko, argitaratu dute "Gerriko Idazlan-Sariketa"ren 2. liburua eta eratu 2. Apirileko Kultur Hamabostaldia. GEEK eta Maizpide Euskaltegiak hainbat ekintza antolatu dituzte batera Lazkao mailan.

"GOIHERRIKO EUSKAL ESKOLA"KO LANGILEAREKIN

Marijoxe Madariaga:

"Kontrolatzen dugunetik hasita zabalduko da gure Proiektua"



G.- Hire lanaren balantze bat egigun.

E.- lazko urrian urtebete sartu nintzen dinamizatzaile bezala. GEE jada Eskola ez denez, irakaskuntza ez daukanez bere esku, Kultur-gintza hartu bere gain eta zer bait egin ote zitekeen jarri ginen. Gerriko Saria martxan zegoen dagoeneko. Niri tokatu zitzaidan lan hori aurrera eramatea, argitaratzeko moduan jartzea (gero aipatuko dugun azterketa soziolinguistikoarekin ere hasi ginen). Liburuak aurkezpen bat behar zuen eta hori beste kultur ekitaldi sorta baten artean sartzea pentsatu genuen. Maizpidek sortu zeneko 3. urtemuga betetzen zuen eta ekintza batzu egiteko asmoa zuten, elkartu eta Sanprontzio festen aurretiko aurreikusitako astea hamabostaldi bilakatu zen. Balantzea, onerako.

G.- Eta orduz gero, soka ez da eten.

E.- Sariketaren prozesua urte osoko lana da, bat bukatzerako hurrengoa dator. 3. Sariketa-

rako lanak jaso ditugu. Aurten ere argitaratu da 2. liburua eta eratu 2. Kultur Hamabostaldia. Aurtengoaren balantze oso positiboa egingo nuke: "Ekin Euskarari" erakusketa ikustera herriko eskola eta ikastoletako ume guztiak pasa dira. Omenduen argazkiak ikusi eta kitto ez baino, haiekin elkarriketa oso aberatsak izan dituzte. Lazkaok zer erakutsi bazuen eta erakutsi du Udaletxe aurreko paneletan. Azken batean, kanpotik datorren Erakusketa hori herri guztietarako da berdintsua. Niretzako pertsonalki, askoz aberatsagoa da bertako talde-multzo handi bat mogituko duen ekintzei ekitea. "Antzarren Bertso-paperak" egiteko gaitasuna azaldu dute goi-zikloko ikasleek eta aurten bapateko saioa ere egin da. Oso gustora.

G.- Tarteak ekintza ugari...

E.- Denetan ere, aurten behintzat saiatu gara herriko jendea inplikatzeko. Ipuin-kontaktetan, profesionalen ordean, Lazkaoko bi etxe-koan-

dre aritu ziren. Saio polita. Probak egin eta bultzatu egin behar dira halakoak. Maritxu Dorronsororen diapositiba emanaldia berrizalea izan zen, horrek dituen arriskuekin. "Euskararen Normalizazioa Herriz-Herri" Mahai-inguruan interes berezia genuen. Garbi ikusten da Lazkao hasi besterik ez dela egin eta Arrasate, Tolosa, e.a. hobeto daudela. Baina bide txarretik ez gara hasi eta hortik jarraitu behar da. Gasteizko Hizkuntz Politikako Idazkaritzatik ere onartzen da herrietako mugimendu hau; eskolorduz kanpoko ume eta gaztetxoak hartu dira kontutan; hortik abiatu gara eta jarraitzeko animoak eman zizkigun mahai-inguruak, sektore ezberdinetako zenbaiti.

G.- Horrekin lotuz, zertan den GEE-ren azterketa soziolinguistikoa?

E.- Behar hainbeste denbora ez diogu eskaini horri, orainarte, aurreko lanak direla eta. "Siadeco"k prestatutako inkesta batzu erabiliz

hasi nintzen orain urte t'erdia. Datu horien bilketa herriko ikastetxe eta elkarte mailan egin genuen. Bi ikastetxez gain, dozena bat elkarre aztertu ditugu, Kirola, Kultura, Aisialdia eta Erlijio taldeetan sartu eta dexteko mogimendua dutela ikusten da. Batez ere kirolean. 100 inguru begiralek, parte hartzen dute, gehienak euskaldunak. 800 bat ume. Datuak biltzerakoan, ohartu gara ia eskolame guztiak "D" ereduari dabilenez, gaiak euskara hutsean lantzen dituztela. Herriak ez daki lazkaoko ume guztiak euskaraz dakitenik, kanpoan erdaraz egin ohi baitute.

G.- Koxka hor dago: euskararen etena.

Euskara taldeak erabilera bultzatzen ari dira.

E.- Bai, bai. Geroztik eta adin-aurerakoekin zailagoa da euskaraz mantentzea eta hortik dihoa. Gure azterketa OHOr mugatzen da oraingoan. Horiei egin dizkiogu proposamenak euskalduntzeko; egoera hobea izan liteke eta esijentziak bete egin beharko dira. Azterketa honen helburua da zabaltea bai adinez eta, lazkaotik hasita, Goierriko beste herrietara.

G.- Txostenen bat prestatu duzue.

E.- Azterketa horretako datuekin proiektu bat idatzi dugu Goierri euskalduntzearen alde, kontutan izanda OHOtik

eta lazkaotik hasi gara, zabaltekoan. Proiektu horretan 6 helburu litateke: euskara lantzea bai, baina ingurugiroarekiko errespetua, denbora librea, aktibotasuna, zaletasunak eta belaunaldien arteko harremanak kontutan

hartuz.

Proiektu horretan hildo nagusi batzu jarri ziren, ekintza konkretuak aztertzen dira. Udaletxera jo eta proiektu zabal eta anbiziotsua izan arren oneritzia jaso zuen. Irakaskuntza mundukoan aortazioak jaso (adostasuna dextekoa da), eta proiektua osatzen ari gara. Lehentasunak finkatu dira eta proiektu hori aurkeztuko dugu Udal eta HPIren aurrean. Bertatik, kontrolatzen dugunetik hasita zabalduko da gure Proiektua. Ekin nahi diogu.

G.- 70. etako "Goierri euskaldun 2.000rako"tik 90. etako honetara. Azkenean bada Goierriko Kultur Proiektu bat orduan?

E.- Heldu behinepein! Lelo hura ez da lortuko, 2.000.a gainean dugu. Baina, behar bada, Goierriko kondizioak beste herri batzuetakoak adinakoak badira. Eman dezagun pausu bat eta mogimendu bat sortu. Orain arte, onarpena izan du gureak.

Mikel Aramendi



PRATE-ETXOLA

Kale Nagusia, 44 Tfnoa: 88 72 06 - BEASAIN



JOSE MARIA ARISTRAIN S. A.

GALDATEGIA eta IJEZKETA

- **MERKATAL eta EGITURAKETA PROFILAK**
- **PIEZEN MEKANIZAZIOA**
- **MOLDEATUTAKO ALTZAIRUA**
- **ZILINDROEN ARTEZKETA**

- **BEREZITASUNA TXAPA MAGNETIKOAN**
- **ZUMITZAK eta BANDA MAGNETIKOAK**

Telefonoak, 880300 - 880350 - 880400 - 880450 (20 linea)
OLABERRIA

merka P21 dendak



**CHASYR
SEGUROS**
ASEGURU AGENTZIA
CARLOS RODRIGUEZ
CARDESIN

Goierrri, 12- Tfnoa: 16 14 15
P-21 Komertzialgunea, 2. oina

ORDIZIA



**TXALUPA
ERRETEGIA**


Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 **ORDIZIA**

IBAÑEZ

- ✓ Kafetegia
- ✓ Izozkitegia
- ✓ Gozotegia

C/Goiherri. Poligono 21-2°
ORDIZIA



- Telf. 16 12 59

Eraikuntzak
P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50



BRICORDIZIA

- BRIKOLAJEA
- ENMARKAKETA
- Eta zure ideiak ...

Goierrri, 21 TEL. 160416 **ORDIZIA**

CARRION
ELEKTRODOMESTIKOAK



**BANATZAILE
OFIZIALA**

Plaza Nagusia, 5
44 Posta Kaxa

☎ (943) 88 13 33
20240 **ORDIZIA**

Zer nahi hura:

PINTXOTAN: denetik
OGITARTEKOAK
BAZKARI eta
AFARIAK




Kawasaki **YAMAHA**

SUZUKI HONDA

ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03




ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxa: 880872. 20249

ITSASONDO

Ezkioko Amabirjinenaren Agerpenak



Andres eta Anttoni Bereziartua, Ezkioko Anduagako lehen bidenteak.

1 931ko ekainera arte herritik eta ingurutatik zerbait aldenduz gero, inork gutxi zeukan seguraski Ezkioren aditzerarik. Baina aipaturiko urtearen uda bero hartatik aurrerantzean, Ezkioren izena harrikada bat

hartu duen uraren azaleko uhin biribilak bezala handituz eta hedatuz joan zen lau haizetara eta gaur egun, adin batetik gorako jendearen artean, lekuri apartatuenetan ezaguna da herri koxkor honen izena.

• Hasierako gertakariak

Andres eta Antoni Bereziartua, 7 eta 11 urteko neska mutikoak, Anduagako muintotik etxera zetozen 1931ko ekainaren 30ean, behiak zaintzen ibili ondoren, ikuiluan sortzera. Maldan oinera iristean neskatoak atzera begiratu eta argitasun handi bat ikusten du gailurreko lau zuhaitzen artean, eta haren gainean Amabirjinenaren isla argi eta garbi.

Arrebak aurrean zeukanaren berri ematean, mutikoak ere gauza bera ikusten du: emakume eder eta triste bat belo zuriarekin, izarrak korotzat dituela. Haurrei keinu bat egin eta poliki-poliki desagertzen da. Haurrek etxera heldu bezain laster ematen dute ikusitakoaren berri eta albistea barra-barra zabaltzen da.

Ez ziren aste asko behar izan toki basa haietatik 60.000 pertsona pasatzeko eta handik hilabetera elizbarrutiko gotzaiak, Mateo Mujika Urrestarazu idiazabalarrak esku hartzea erabakitzen du elurpilota bezala handituz doan kasuak gehiagora jo baino lehen. Kultu-egintza ofizialak ospatzeko baita ukatu eta agerpenak egiazkotzat jotzen dituzten postalen salmenta debekatzen du.

• 31kusle berriak

Albisteak Goierri eta Gipuzkoako mugak gainditu

24 Goierritarra

eta laster iritsi ziren Nafarroa aldera. Bide batez, agerkariak desberdintzen hasten dira: Ama Doloretakoa, Sortzez Garbia ezpata eskuan duela edo bihotza alderen alde zulatzen diola, Mikel Goiangerua, Mirarietako Amabirjina, Santa Teresa, deabrua, Pragako Jesus Haurtxoa, sorginak eta abar agertzen zaizkie beste hainbeste ikusleri. Berauetako askok espasmoak, histeri erasoak eta konortegaltzeak izan zituzten eta agerpenak lehen aldiz gertatu omen zireneko tokia gal-gal irakiten jarri arte berotuz joan zen lapiko baten gisara zegoen. Izen batzuk aipatzekotan, Patxiu Santu, Legazpiko Benita Agirre neskatoa, Itsasondoko Gurutz Lete, Jesus Elkoro, Bilboko langilea, Beizamako Ramona Olazabal, Aurelio Cabezon, Donostiako argazkilaria, Jesus Rodriguez taxista eta abar luze bat eratzuten duten era, adin eta jatorri guztietako pertsonak eman beharko genituzke. Berorien artean autobusetan Kataluniatik etorritako ikusle-multzoko bat ere ez zen falta.

• Starkieren testigantza

Starkie, hispanista irlandar katolikoak ikuspenak puripurian zeudela bisitatu zituen Ezkioko aldeak eta "Spanish Raggle-Taggle" bere liburuan kapitulu oso bat eskaini zion jasotako lekukotasun edo testigantzei.

Irlandarrak kontatzen duenez, Ezkioko gertakarien hiru ezaugarri nagusi eman behar izanez gero honako hauek aipa litezke:

- a) Ikusleen artean zegoen baserritarren nagusitasuna,
- b) Naturaz gairik gabeko harremanetan euskara bakarrik erabiltzea eta,
- c) Laster gertu-beharra zen gerraren behin eta berriko aipamena.

Starkie, inguruan izan zituen kontakizunak entzun ondoren, aski komentziturik zegoen palanka politikotzat erabiltzen ari zirela Ezkioko gertakaria zenbait tradizionalista eta eskuindar.

Irlandarrak ikusi zuen Ezkioko agerpenen tokiak Gerrate Haundian Frantzian erabat murrizturik eta txikiturik ikusi zituen lurraldeak ekarri zituzten gogorra. Aurretik berde eta landarez betetako gunea, larriturik eta gorriturik omen zegoen hainbeste pertsona zapaldu ondoren. Hasierako lau zuhaitzak ere zarratatu eta izpi izpi oroiarritzat sakabanatuak omen zeuden. Inguruan beltzez jantzitako emakume baserritarrak omen zebiltzan zuhaitz sakailatu haiei musuka eta laztanka. Lau zuhaitz haiek Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa, lau probintzien sinbolo zirela esan zuenik ere izan omen zen.

Errosarioa euskaraz eta letaniak latinez erreztatu ziren eta halako batean neskato bat "Ama, ama, ama" deiadarka trantzean sartu zen, eta bost gizonak muinoan behera eraman zuten hildako baten erara.

Geroxeago Ataungo mutila etorri zen beltzez jantzitako beste lau mutil zuzidun inguruan zituela. Ez zuela ezer ikusten esan zuen. Une batez gelditu, erreztatu eta beste leku batera jo zuen. Inguruko guztiek erreztatzeari ekin zioten eta halako batean, supituki, belauen gainean erori eta "Ama, ama, ama" oihuka hasi zen. Aurpegiak argizari-kolorea omen zuen eta ahoa erdi-zabalik omen zuen, hiltzeko zorian dagoenak bezala. Senetik erabat irtenik zegoen arren, begiak zabal-zabalik zeuzkan. Une batez zirkunik egin gabe egon zen, lagunen besoetan; bapatean gizagaindiko indar batek erakarria bezala airean altxatu eta hitz batzuk ahapean esan zituen berriro atzekaldera erori baino lehen. Trantzeak guztira hirubat ordu laurden iraun zuen eta gero muinoan behera, Simon zahararen etxera eraman zuten, apaiza eta medikua itxaroten zeuzkan gelara. Frantzisko Goikoetxea, Ataungo mutilak hila zirudien ohe gainean ezarri zutenean.

Starkiek kontatzen digu mutila zurbil, ahoa erdi-zabalik zuela, sudur markatu eta masaila sartuek edozein behatzaile arrunt engainatuko omen zuket; baina zuloetatik irteteko zorian zeuzkan begiek sekulako bizitasuna adierazten omen zuten. Alboan zegoen medikuak pulstua erabat normal zeukala esan zuen eta arnasketa guztiz erregularra, eta hori haluzinazio edo esperientzia kateptikoren baten menpe ez zegoen seinalea zen. Korrotea berreskuratu zuenean, ahots sakonez, erdi-euskaraz erdi-gaztelaniaz hitz egin zuen ataundarrak eta bere ikuspenaren berri eman zuen. Amabirjinak luzaroan hitz egin omen zion, baina orduan barik gerora kontatuko zituela esan zuen. Zuriz eta urdinez jantzirik hogeitabost aingeruz inguratua ikusi omen zuen Amabirjina eta eskue-tan ezpata biluziak omen zeuzkaten. Ondoan San Migel Goiangerua ageri omen zen ezpatatik odola zeriola. "Ama Doloretakoz" jantzita omen zegoen Amabirjinak zapi batez xukatzen zion ezpata Arkaingueruari. Euskal Herrian gerra zibila sortuko zela katoliko eta katoliko ez zirenen artean eta azkenean lehenak, asko nozitu ondoren, garaile aterako zirela aitortu omen zion.

Era honetako ikuspen eta kontakizun ugari bil zite-

keen garai hartan Ezkioko zelaietara hurbiltzen zirenen artean.

• Elizaren jarrera

Errepublikan ezarri baino lehen bi joera zeuden katolikoaren artean. Alde batetik, apaizeria tradizionalista zegoen, monarkiko eta integrista edo karlistekin batera, lehenbailehen Nafarroako erreketak eratzeko prest zeudenak. Vidal y Barraquer apezpiku kataluniarra zegoen, besteak beste, joera honetako gidaritzan.

Mateo Mujika, apezpikua, kasu berezi bat da, oso ideia finkoak zituen eta aurrea errepublikarrek eta gero antierrepublikarrek erbesteratzen dute. Lehen unetik konturatzen da interes ilun askotxo dabilela Ezkioko ikuspen eta agerkarien atzetik, Starkie irlandarrak nahikoa garbiro egiaztatu ahal izan zuten. Mateo Mujikarentzat egoera erlijiozko eta politikazkoa aski delikatu da eta ez dago berrikeria ibiltzerik gauzek eskuetatik ihes egitea nahi ez bada. Bere elizbarrutian eta Nafarroan Errepublikaren aurkako konspirazio bat umotzen ari dela ikusten du: alde batetik konspirazioak bide instituzionala darabil eta bestetik, erregimen errepublikarra desegingo duen kolpe militarra ezkutan prestatzeari ekin diote.

Apezpikuak bi arrazoiengatik errefusatzeko dituzten Ezkioko mirariak: elizak naturazgandiko auziak interpretatzeko duen ahalmena eta monopolioa defendatzearen eta elizbarrutia maniobra politiko izan zitekeen hartan ez nahasteko, kolpisten intrusismoari uko egiten ziolako.

Gaitzespena argi eta garbia ez da lehen adierazpenetan gertatzen. A. Laburu jesuita ezaguna izendatzen du mirariak ezeztatze eta apaizei Ezkiora joatea debekatzen die 1932ko apirilaren 20an. A. Laburuk elizbarrutiko mila apaiz baino gehiagoren aurrean hitz egiten du Gasteizko Seminarioko. Hitzaldi honek eragin sakona izan zuen Euskal Herriko erlijio-gizon eta emakumeen artean.

Hurrengo urteko ekainaren 10ean Ezkion basilika bat egitea debekatzen da eta 1933ko irailaren 7an iristen da behin betiko gaitzespena. Mateo Mujikak esaten du ez dela bakarrik naturazgandiko faktoreen falta bakarrik nabarmentzen dena, baizik eta Jainkoaren izpiritualitate eraginik ez dabilten eragileen eskuhartzea dagoela gainera. Ikusleei Anduagara joatea debekatzen zaie Jaunartzearen ukatzearen zigorpean. Ofizio Santuak abenduaren 21ean onatzen eman zuten neurri hori.



Jesus Elkoro, Bilbokoa, bixioan

• Ezkioko eskomikatuak

Beraz, 1934. urteaz geroztik, Ezkio toki debekatu bihurtzen da Elizaren aldetik ezezik Errepublikarenetik ere bai. Bertara oso jende gutxi joaten da. Hala ere, Amabirjinarenganako legekontrako kulturak eta zenbait ikusle tarteko zirela gertatzen ziren zenbait gertakari aurrera jarraitzen dute. Gotzaiaren baimenik ez duen erlijioso esklastratu baten darama bertako gidaritzan debeku guztien kontra eta "Ikusleen" zuzendaritzan izpiritualitatean aritzen da. Fededunak sekta itxi bat eratzeraino iristen dira. Bileretan beren literatura berezia irakurtzen dute eta gerrate zibilak ez dituzten bizipen eta ospaketa horiek. Ostiral eta igandetan oso geroa arte jarraitzen zuten Anduagara joaten zenbait pertsonak. Baina elizaren hierarkiari leialtasuna ziotenek bertan behera utzirik eta Errepublikaren konspiratzaileak ere bazterturik, euskal preindustrialismoaren azken inarrosialdiaren bat izan zela Ezkiokoa uste du zenbait. Geroago Unbeko Amabirjinak hartuko du Bizkaian sentikera horren zuzia, bere kutsu milenarista guztiarekin. Seguraski, ez da ezikusia egitekoa postindustrialismo bidean aurkitzen den Euskal Herri honetan osagai arkaizante hauek parez pare nola gertatzen diren eta seguraski gure herriaren izaera aztertzerakoan oso kontutan hartzeko ezaugarriak dira gaur eguneko zenbait gertakari eta egoera politikoa ere behar bezala ulertu ahal izateko.

Xabier Mendiguren (Itzultzailea)

Beasaingo
Loinatz



Festetan
daudenei

Zorionak!


ATERPE TABERNA

KULTUR ERAKUSKETAK
EGITEN DIRA

*Jai Zoriontsuak
opa dizue*

Tfnoa: 88 46 66

BEASAIN



HARRIA GRESAK

BERRIKUNTZA OSOAK

Nafarroa Etorbidea, 45 • Tfnoa: 88 54 66
20200 BEASAIN

MIRENTXU LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 2 • Tfnoa: 88 14 57



Mundu

Berebil-Elektro aldagaiak

Nafarroa Etorbidea, 35 • Tfnoa: 88 00 72 • 20200 BEASAIN



MAYOR, 7 • Tfnoa: 88 03 19 • 20200 BEASAIN

**JAUREGI
TOLDOAK s/l**

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

BEASAINGO FUTBOL TALDEA 3. DIBISIOKO 2. POSTUAN

Pello Gibelalde:***“Futbol-zelaia
betetzen da
taldea ondo
diboanean”***

Beasaingo Futbol Taldeko bai kadete, bai jubenilak eta bai helduen mailan dauden jokalariek denboraldi bikaina burutzen ari dira. “Puntan” daude azkenok.

GOIERRITARRA.- Posibilitaterik bai igoerarako?

PELLO GIBELALDE.- 3. Dibisioan ez du esistitzen igoera zuzenak. 16 taldeetatik, lau taldeetako lehenengoak klasi-fikatzen dira. Horien artean “Play-off” (“ligilla” bat jokatzeko da, 6 partidu dena). Hor irabazten duena igotzen da automatikoki 2.-B Dibisiora. Liga hone-tan aurren gelditu arren ez ginateke igo-ko 2.-B-ra automatikoki: Kantabria, Na-farroa eta Aragoieko taldeekin jokatu beharko genuke. Gutxien-gutxienez, 3. Dibisioko bi aurrenekoen artean egon-go gara Gipuzkoan.

G.- Badirudi Beasainen Udalak, eta merkatariek apostu galanta egin duela zuen taldearen mesedetan (publizitatea, e.a.). Aurrekontu horrekin, etorkizunerako proiektu bi-deragarria dela uste duzue?

P.G.- Hori zuzendu egin behar da. Ham-aika aldiz esango dut, Beasaingo Uda-lak betiko diru-kopuruekin lagundu du. Futbol-zelaiko zaindariaren gastuak ordaintzen ditu. Ez peztu bat gehiago, ez gutxiago. Loinaz Zelaia municipala da, ez da geurea.

G.- Egin diren fitxajeak egin direla,

suposatzen da iazkotik aurtengora-ko aurrekontua igo egingo zela, ez-ta?

P.G.- Igoera ez da iaztik aurtengora-koa, aurrekoetatik orain arteko hitz egin behar da. Zuzendaritza honek Tal-de hau hartu zuenean, Errejonaleko 1.rako jeitsiera salbatu berriak ginen, 3 milioiko aurrekontua zegoen. Aurre-kontu hori 8 milioira igo zen 1. denbo-raldian. Superabita egon zen. 2. denbo-raldian 8 milioitik 11 milioira igo zen eta 3. Dibisiora igotzera iritsi ginen. Geure gestioa, irteerak baino sarrera handia-goak lortzean oinarritu da. Aurren ere presupostua igo da eta superabita izan-go da. Futboleko gestioak enpresa bati dagozkionak bezalakoak direla sinesten dut nik. Errekurtsoak bilatu behar dira (Udaletxetik datozenak oso murrizak dira): publikitatea, bazkideak, sarrerak eta beste. Publikitatea oso garrantzitsua da, takilen egoera ez da oso ona Euskal Herrian: ekipoa ondo doanean jendetza handiak izaten dira eta alderantziz (Es-painian ere, nik uste igoaltsu izango di-rela gauzak).

G.- Formula horrekin aurrekontu horiei eusten diozue?

P.G.- Lasai asko gainera. Lan asko egin

Nahiz eta 3. Dibisioko sailkapenean le-henengok gelditu, automatikoki 2. Dibi-siora ez da pasako Beasaingo Futbol Tal-dea “Play-off”etik pasa gabe. Pello Gibe-lalde Beasaingo presidentearekin egon gara.

behar da publikitatea lortzeko, baina sortzen bada sarrerarik, tapatu litezke sortzen diren gastuak.

G.- Igoera lortuko ez balitz, zer ger-ta liteke oraingo plantilarekin, zer po-litika jarraituko litzateke? Gaztet-xo- taldea bere saileko garailea da, gazteak ere ondo dabilta, arrerant-zean harrobia kontutan hartuko lit-zateke?

P.G.- Lehia betean gaude oraintxe eta ez da gauza hauetaz hitz egiteko ordua. Zerbait aurreratzeagatik, aldaketak egongo lirateke, baina ez hainbeste. Batzutan iruditzen zait zentzu bikoitze-ko galdera dela, ze iaz talde batzu keja-ka ziren esanez azpiko harrobiaz ez gi-nela baliatzen. Errealitatea zera da, ju-beniletan ohorezko dibisiora igo behar gara eta kadeteetan txapeldunak gare-nez kategoriaz igo behar gara.

G.- 2.B-ra igoko bazinateke ere, oja-la, ez da erraza izango harrobitik maila hori dutenik ateratzea...

P.G.- Ojala. Adibidez, Errela (urruti da-go, baina ez hain urruti): Atotxara diho-anak ez du begiratzeko jokalaria Grose-koa edo Antiguokoa den. Orain hiru ur-te esan nuen eta berriro diot, ezkerreko

muturreko puntako bat behar badugu eta ez Beasainen, ez Ordizian, ez Tolosan eta ez Irunen ez badago, eta Errenterian bai, bada handik ekarriko dugu. Eta Beasaingo batek espaziorik ez badu 2.-B-n, bitartekoak bilatuko zaizkio jokatzen segi dezan.

G.- Baina, jakina, onak ateratzen badira joka dezatela.

P.G.- Zer nahiago nuke nik, hemendik bi urtetara, gure etxeokak 2.-B-n ikusi eta kuadrila osoa beasaindarra!

G.- Errenditu ondo errenditu du aurten, baina nola hartu zen herrian fitxajeen politika berria, taldea herriko taldeen errepresentati-boa ez izatea?

P.G.- Inkestak egiteko mania daukat nik. Formularioen bidez egin daitezke inkestak, baina bai eta ere egunero-egunerokoa ikusiz. Eta esan dezaket

Beasaingo jendea geroz eta gehiago, sekula baino gehiago, hurbiltzen dela kanpo- futbolera. Motibua, ekipoa ondo dihoala; eta taldea ondo dihoanean, jendeak ez du galdetzen atezaina hementxo edo hangoa den. Ona dela eta gure ekipan dagoela ikusten du eta hori inporta zaio. Ez dugu ezer egingo 11 jokalariek etxeokak izan eta aurrera ezin badugu egin bertakoekin; 18 enplegatu-ko enpresa hau aurrera ateratzeko Ordiziko jokalaria bat, Itsasondoko bi, Segurako bat eta Tolosako bat behar badira, bada ekarri egiten dira. Beasaingo Kirol Elkarteko sozioak dira kontuhartzaileak eta horretan gaude. Emaizak eskatzen ditu edozein futbol elkarteko sozioak, ez karneta.

Loinaz Futbol-zelaiko tribuna berria beharrezkoa zela deritzo Gibelalde, eguraldi txarrei aurre egiteko. Beste zenbait gauza ere

egin direla dio, tribuna zabarraren bobetzea eta bobekuntza orokor-rrak. Igoera lortuko balute nola-baiteko ospakizunik pentsaturik edukiko ote luketeen (paseoak bagoietan, e.a.) galdetutakoan, momentuz ezer pentsaturik ez dagoela dio Pellok, baina bartaratuz gero hori litzatekeela errazena.

Dena oraingo egoerak markatzen bide du eta igo ezean ere ez dago aurreikusirik aldatetarik entrenatzaileen ekipo- teknikoaren baitan. Kontentu daude daudenekin. Ea bada, Goierriko kirol esponente bikainena den Beasaingo Kirol Elkarteko Futbol-Taldea punta-puntan ikusteko zoria dugun eta 2. Dibisiora igota.

JESUS MUNDUATE

INAKI MURUA

J.A.

Bi lerrotan

➡ **Javier Palacin**, Kaiku-Gurelesa taldeko Ordiziako txirrindularia emaitza onak lortzen ari da arlo horretan. Astebete nahikoa izan zuen erakusteko balio duena hiru garaipen lortuz. Frantzian izan dira orain gutxi Open bat korritzen profesional eta amateurekin. Berehaldiko esperientzia izan duela aitortu du. Beasaindar-rrak 3 urte daramatza afizionatueta korritzen.

➡ **Ordiziako Rugby Taldea** garaile suertatu zen Ejea de los Caballeros-eko torneoan. Atletismoko ekipa emaitza onak lortzen ari dira, halaber.



Josean Kerejeta



Aitor Garmendia itsasondarra

➡ **Josean Kerejeta** lazkaotar saskibaloia jokalaria-ohiak "Taugres"eko zuzendaritza hartu zuenetik goraka dihoa bere taldea. Badirudi esku ona duela Kerejetak eta, azkenaldian, multinazional batek 600 milioi eskaini dizkiola berak zuzendutako Klubari berori erostekotan.

➡ Ez dakigu denok jakitun izango zareten. **Aitor Garmendia**, txirrindulari itsasondarra Espainiako itzulia korritzen ari da Banesto taldearekin. Nahiz eta, guk nahi genuen bezala etaparik irabazi ez, emaitza ona lortu du azkenean.

➡ **Moskuko "CSK"** eskubaloia taldeko jokalariek Oianguko aterpetxean izan dira eta Majori Kiroldegian jokatzen zuten.



Elosegi, 13 • Tfnoa: 16 10 16
20210 LAZKAO



Neurriko bizikleten salmenta
konponketa eta montajea

Urdaneta 56 • 16 11 97 ifnoa • ORDIZIA



Josune Zaldúa ataundar arkeologoa

63.ean jaio zen Josune Ataunen. 86.ean Gasteizko Filologia eta Geografia-Historia Fakultatean Geografia-Historian lizentziatu zen. Ikasle garain eta ondoren ere, Arkeologi-Indusketa ugaritan hartu du parte. 88tik 90era Hiri-Arkeologiako Heziketa ikastaroa egin zuen, beka-dun modura.

Egun, 90etik, Gipuzkoako Industri eta Herri-Lanen inbentarioa egiten ari da, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskatuta. Irakaskuntza mailan ere irakasle bezala lanean dihardu. II. "Gerriko" Ikerlan-Sariketako 3. saria lortu berri du "Meatzaritza Goierriin (1850-1950): Aztar-nak" lanarekin.



Jeronimo Nazabal artzain zaldibitarra Oiartzunen

Txiki-txikitandik aritu izan da Jeolimo ardiekin atzera eta aurrera, garai batean aitarekin eta gaur egun emazte eta semearekin. Sei urterekin hasi eta hamalau urterako egin zuen bere lehen gazta. Artzantzan aritzeko gogokoa eta berezkoa izan behar duela, aitortu zion "Egunkaria"ri artzai zaldibitarrek.

Artzai gazte honi ez zaio edozein mendi gustoko. Aralarko mendiak, Zaldibia inguruko mendiak ditu gogokoen: "Hango mendietako belarra askoz aberatsagoa delako. Ardiek esnea emateko bertatik jan behar dute. Gainera, ez da horrenbesteko kotxerik ibiltzen.

Apiril aldera honuntzatzen da ardi eta emazte-semearekin. Artzain hirukoteak bi hilabete ematen ditu urtero Aralarren, nahiz eta ardiek sei hilabete egiten dituzten bertako bazkatan belarra jaten.

Zibilizaziotik urrun, mendian, ardi artean aurkitzen du Jeolimo lasaitasuna. Bertan daude nean apenas dute kontakturik kanpoko munduarekin. Beste zenbait artzai ere ibiltzen da paraje hoietan baina ez omen dute gehiegi elkar ikusten. Justu astean behin Ordiziako feriera jeisten direnean janari bila.



Xabier Mendiguren itzultzaile-poliglota ezkiotarra Donostian

Txikitatik datorkio eta oraindik irauten dio bokazioak. Hizkuntzen mundua, irakurketak eta idazketak funtsezkoak izan dira berarentzat. Eskolara joan aurretik amak erakutsi zion irakurtzen eta idazten, eta baserritarra izan arren, ez zuen inongo arazorik izan Gabiriako eskolan gaztelaniara moldatzeko. Arazorik izan ez zuen bezalaxe, 11 urte bete eta Bizkaira ikasketak egitera joan eta, bertan moja italiar batzu zeudela aprobetxatuz, italiara ikasteko. Beti ere autodidakta bezala aritu da, bere kaxa. Oraindik oso gazte zela ingelesa eta alemaniera ere ikasi zituen. 8 hizkuntz dauzka. Beharko irakurri eta atzerriko jendeekin harremanak idatziz eduki horretarako!

Seminario garaietatik hasita gaurdaino euskararen munduan buru-belarri murgildurik ibili zaigu Mendiguren. "Laiaketa" izenekoan, haserako "Jakin"en, garai hartako eta gero-ko euskal aldizkarietan ibilia dugu. Orain dela gutxirarte, "Xabier Mendiguren", X.M. hau (Bereziartua, alegia) zen euskal letretan; orain bi dira, berau eta Xabier Mendiguren (Elizegi bigarrena, beasaindarra). Nola daraman hori ezkiotarrak? "Nik zer esango dizut? Bakoitzak bere izena erabiltzeko eskubidea dauka eta hala suertatu da, beste hizkuntz eta lekuetan ere gertatzen dira... Euskal Herria txikia da eta alor berdintsuan ibiltzean, ba... Uste dut, gutxi gora-behera euskararen munduan dabiltenak badakitela bakoitza zertan gabiltzan. Batzutan nahaspi-deak sortzen dira, baina.", diosku.

Berak eginiko liburuen artean, "Euskal Historian zehar", "Europako Ezker Berria", "Iparragirre", itzulpen teroriari buruzko bat (oraintxe beste bat ateratzekotan da),... Itzulpenekoetan 50tik gora. 10 urtetan Itzultzaile

le Eskolako zuzendari izan da, etorri handiko gizona, edozein gairi buruz hitzegin daiteke berarekin. Edozein lekutan oso gustora eta Donostian, berriz, pozik bizi da Xabier, Deustun "Master" bat eman, Gasteizera irten... Tarteka-tarteka Goierriara, Ezkiora ere hurbiltzen da "eta arnasberitzen naiz; gaur egun, hain da txikia dena!, senideok harremanetan egoten gara, baserrian egiten ditugu bazkariak, paseoak. Atsegin izaten ditut txikitako lekuak".



Xabier Iturriotz "Zapas" legorretarra zapatarri Bitorin

Gasteizko Alde Zaharreko kale estuetan oraindik ere badago artisautzan ari den jenderik. Horren adibide, Herreria kaleko Doña Otxanda dorrearen babespean dagoen zapategi bitxia da. Bertako zapataria zein izango eta "Zapas" ezizenez ezaguna den Xabier Iturriotz legorretarra, ETako hildako militantea izan zen "Zapas"en anaia.

Gasteizen ikasi behar zuen aitzakiaz, hara joan eta gasteiztatu diren ehundaka gipuzkoarren artean zapatarik itxurosoenak dituen omen dugu Zapas. Bere zapatagintzarekiko zaletasuna legorretan bizi zen garaietan ematu zen ordea. "Aita zapataria huan eta berak konpontzen zizkian herriko zapata guztiak". Bera banatzaile. Aita hil zitzaionean hasi zen zapata-konponketan, "Egunkaria"ri aitortu zionez.

Garai horretan, ikasketak zirela medio, Gasteizera joan beharra suertatu zitzaion. Geroztik Unibertsitatean, AEKn eta abarretan ibili da. "Hala ere, nire betiko asmoa

zapatagintzan iharduteko lokal txiki bat hartzea izan dek", azaldu zuen. Eta baita lortu ere. Badu konturik Zapasek: eskuz egindako zapatarri utzi egin behar zaiola, hobea dela oinetako onak eta beroki txarxeagoa eramatea, e.a.

Oso popularra izan behar du Zapas Bitorialde horretan, koadrila galanta omen du. Azkenik, "Begirik kendu gabe" telebista-programan ere aterata da, aidanez.

J. Arano

EZ DA HAMALAU, HAMAICA LIBURU KALERATU DITU BEASAINDARRAK

Xabier Mendiguren:

“Erakartasun gutxi dute niretzat istorio xamur eta goxoek”

G: Hasteko, konta iezaiguzu nolaz hasi zinen idazten; zerbaitegatik hasiko zinen ezta?

X.M: Nik uste dut idazten hasten denak ez dakiela justu zergatik hasten den. Barruko bultzadaren bat-edo izaten da. 16 urte inguru nituela hasi nintzen, baina erderaz, hala ikasi nuelako. Euskaraz ez nekien ez irakurtzen ez eta idazten ere. 17-18 urte inguru nituela halako euskal kontzientzia bat hartuz, nere kasa alfabetatu nintzen, Argia irakurriz, duela 10 urte. Geroztik erabaki nuen, idazten nituenak, euskaraz idatziko nituela. Izan nuen bolada bat, erdera utzi eta euskaraz idazten hasi nintzenean, behar bezainbesteko trebetasunik ez nuen. Baina geroztik esan liteke, aspaldi samarretik, euskaraz idazten dudala. Zergatik? Hori azaldu ezina da.

G: Literatur zaletasuna txikitatik orduan.

X.M:- Ez dakit, liburu giro berezirik ez dut bizi izan etxean. Baina liburuetara murgildu abala, gero eta gusto gehiago hartu izan diot; piskanakako prozesua izan da, baina gero eta gehiago eta gaur egun liburuek betetzen dute nire bizitza osoa, bai lanbidea eta bai lanaz kanpoko nire ordu libreak ere.

G: Batez ere gazte-literaturan eta antzerkian murgildu zara Zergatik?

X.M: Bai. Beno, antzerkian, antzerkia gustatzen zaidalako. Utzi badut izan da, neurri handi batean, nik idatzitakoa, gero taula gainean ikusteko zailtasunak daudelako. Nik ideiak izan ditzaket buruan, baina gero boro


rrek erabat kointziditu behar du talde batek dituen nabiekin eta beharrek. Orduan, antzerkia paperean bakarrik gustatzen ez zaidanez, utzi egin diot idazteari. Haur literaturan berriz, nik ez dut seme-alabarik eta ez naiz irakaslea, eta orduan haurrekin harreman zuzenik ez dut izan eta ez zait hortik jaio. Haurrenganako joera berezirik ere ez daukat, egia esan. Baina literatura modu honek baditu bi ezaugarri, nire gustokoak: abentura asko, ekintza etengabea, bizjoko ugari eta umorea. Ezaugarri horiekin ateratzen diren istorioak, literatura sail horretan koka ditzazkegu.

G: Zure bizitzaren isladarik bai idazten dituzuenetan?

X.M: Galdera zaila da bori. Idazle batek ondo samar idatzi nahi badu, jakin behar du bere buruaz aparteko gauzak asmatzen. Eta nik uste dut, berez nire pertsonaiak eta nik kontatzen ditudan istorioak ez dutela batera zerikusirik nire bizitzarekin. Baina, nolabait ere, kontatzaileak bere buruan izan behar du bestelako sentsibilitatea gero bereganatzeko, asmatzeko eta imajinatzeko abalmena. Baina inoiz aplikatu izan dut, nire bizitzako zatiren bat edo beste.

G: Zure ipuinetako makabrotasunak badu zerikusi zuzenik zure bizitzarekin?

X.M: Gertatu izan zait, ipuin gordin eta makabro samarrak idatzi izana. Psikologo batek beharbada esango luke, nahiz eta itxuraz pertsona lasaia izan, barruan halako pizti bat daukadala izkutuan. Nik ez dakit zergatik; halaxe aterazaz



"Sei ipuin amodiozko" (bi aldiz) eta "Hamalau" kaleratu berri ditu.

kidalako. Egia esan, istorio xamur eta goxoek erakartasun gutxi dute niretzat, Indar gehiago du zerbait gogorra kontatzeak. Baina ez naiz bereziki gauza horien zalea. Hala eta guztiz ere, ez dut uste zerikusirik duenik nire bizitzarekin eta pentsamenduarekin.

G: Horrek zer esan nahi du, ez zaila gustatzen ipuiei bukaera zoriontsurik ematea?

X.M: Gertatzen dena da, bukaera zoriontsua berez ez dela bukaera. Niri gertatzen zait, ondo doazen istorioei zerbait gertatu behar zaiela bukatzeko. Pentsatzen jartzen bagara, zein da gizaki guztion bukaera? Beti heriotza izaten da. Ba orduan, bukaera naturalena, nabiz eta pesimista samarra izan, bukaera txarra izaten da. Bestelakoak ere egin ditut. Batez ere baurrentzako istorioetan.

G: Literatur-lanak alde batera, badakigu Elkar-en ari zarela lanean. Auzartuko zinateke gaur egungo Euskal Literaturaren diagnostiko bat egitera?

X.M: Zaila da. Berez Euskal Literaturaren egoeraz hitz egiten denean bi gauza konpara daitezke: batetik, gure inguruko beste literaturekin eta nik uste dut konparazioak oso desegokiak direla, bizkuntzak berak markatzen duela

ko esparrua, eta bestetik, konparatu daiteke lehenxeago egiten zen euskal literaturarekin. Nik uste, orain dela 10 urte baino literatura gehiago eta hobea egiten dela. Etorkizunari buruz, uste dut literaturak izan dezakeen etorkizuna bizkuntzarenarekin lotuta dagoela erabat. Orduan, euskararen erabilera soziala haundituz doan neurrian, literatura gehiago eta hobea egingo da. Baina, euskara gero eta murriztago erabiltzen den neurrian, gero eta pobleagoa baldin bada, orduan literaturak ez du izango aldaketarik.

G: Beraz, hizkuntzaren etorkizunarekin lotzen duzu literaturarena.

X.M.: Bai, azken batean literatura, bizkuntzarenarekin egiten den artea da. Eta beno, euskaraz jakiteak ez du esanahi literatura egingo duzunik. Baina hori,

"Euskararen erabilera soziala haunditzen den neurrian, haundituko da literatura"

baldintzetako bat da. Esan nahi dudana da, euskara gutxi eta txarra egiten den lekuetan, bortik literatura onik ezin dela ateratu.

G: Bukatzeko, zure bizitzan zehar pixkanaka gorantz igotzen ari zare-

la ikusten da. Noraino igotzea espero duzu?

X.M.: Beno, Euskal Herrian gauza bat gertatzen da: gutxi gara. Eta herri honetan, beraz, erraza da pertsona gazte bat nabiko kementsu lanean hasten bada, neurri batean gora igotzea. Begiratu besterik ez dago, euskal komunikabideetan zenbat jende gazte dagoen 30 urte baino gutxiagokoa. Baina hortik gorago ez dago igotzerik. Hau da, Frantzia edo, izen piska bat lortu arte behintzat, urte askoz gehiago kostako da. Baina eskilara oso luzea da eta beti igo daiteke gorago-gorago. Obore mailan, diru mailan eta nahi den mailan. Baina Euskal Herriko eskilara oso txikia da; gora igotzea erraza da, baina hortik gora ez dago bide gehiagorik.

Nekane Altuna
Loinaz Agirre

Goierriarren liburutegia



"Tangoak ez du amaierarik"

Xabier Mendiguren, "Elkar", Donostia 1989, 184 orri (Juan Inazio Mendizabal, "Mendi"ren irudiak).

Liburu hau ez da ohizkoa haur literaturaren esparruan, nobela oso bat baita. Haur literatura generoko ipuinetan, piratak, adibidez, izan zirenaren karikatura izaten bukatzen dute: hankapalua, partxea begian, e.a. duten zirriborro soilak. Honakoan pertsonaiek egiazko izatera dute.

Buenos Airesko zirkor zaharkitu batean, Pantxo, errantxerak kantatzen dituen pailazoa txorabiatu egiten da behin eta berriro fokoak ikustean. Hortik aurrera, hainbat gertakari lotuko dira bata bestearekin eta horien bitartez zirkoko artista bakoitzaren bizimodua, arazoak e.a. agertu eta argituko dira. Saltsa ugari zipristintzen du zirkoko jendea: Giuseppe eta Giovanni Rocanera nagusi xuhurrak, Miss Mitsur-

bishi dantzaria, Blas magoa, Kristopoulus trapezista familia... Azkenean, istoria inork uste baino okerrago bukatuko da. Batetik bestera pakete-trafiko arraro bat dabil...

Xabier Mendiguren beasaindarra 1964ean jaio zen. 28 urte ditu eta horietatik puska ederra eman du trenetan, Zumarraga, Tolosa eta Donostia bidean; damurik ez ordea, bere bizio bihurtu diren liburuak irakurtzeko aprobetxatu bait du denbora hori. "82 hondarrean deskubritu nuen literatura euskaraz, Susaren eskutik, eta berehala hasi nintzen neroni ere idazten". Euskaltegi batetan eta beste zeregin batzuetan aritu ondoren, "Elkar" argitaletxean lan egin eta euskal komunikabideetan ohizkoa dugu.

Kexexo



"Sei ipuin amodiozko" (2. edizioa). Xabier Mendiguren, "Susa", Donostia, 1992
Xabier Mendiguren Elizegiren lehen

liburu honetan egilearen luma sorpresiboak eman ditzakeen fruituatariko batzuk besterik ez dira agertzen. Egileak hautaketa tematiko baten arabera moldatu du liburuak, ipuin bakoitza bai testuinguruz eta bai amodioa, hori bait da gaia, abordatzeko modua erabat aldatuz. Formalki aniztasuna eskaintzen du Mendigurenek, eta hizkuntzaren menderatze harrigarria. Makabrotasunerako joera nabari zaio beasaindarri; baina horretaz gain zinemarekiko eta txabakanotzat hartu ohi den kultura edo subkulturarekiko gustoa ere antzematen da beste ipuinetan. Eta orohar, "happy end"ari muzin egitea. Egileak ez du maite amaiera zoriontsurik, nahiz eta ipuinak ongi amaitzen trebea den. Liburuak irakurtzean, irakurtzen amaitzean, saskian hain fruitu gutxi egotea da sentipen nagusia; hori bai, sei fruituak gozoak dira. Zaleak sortuko ditu liburuak.

Mikel Antza [SUSA 19, 1986]

"Hamalau",

Xabier Mendiguren, Elkar, 140 orri, 825 pzt.

X.M.-i ez diote amaiera ona, "arrosa kolorekoa" duten ipuinek grazia-rik egiten. Eta Hamalau honetan ez

duzu honelako amaiera duenik bat bera ere aurkituko.

Zazpi motz eta beste horrenbeste luze. Horrela banatu ditu teknika desberdinez idatzitako narrazio hauek. Bertsotan bezala, azkeneko uzten du eztena Xabierrek, batez ere lehen zazpi ipuin labor ho-



rietan. Beste zazpietan ere istorio gogorak, larru-azalean dardarizoo sortzen dutenak, xamurtasunari kupidarik ez diotenak. Badute tiradizorik ipuin hauek, nik trenean irakurri nituen, eta horretan ari nintzela nire geltokia pasa egin zitzaidan. Xabierren herrian jaitzi nintzen, Beasainen, eta liburutegia baten aurretik pasa nintzenean, pentsatu nuen agian norbaitek "Joxeme eta eroen ohelicopterak" edo "Joxeme gerrara daramate" —Xabierren gaztetxoentzako beste bi liburu— erosiko zituela.

Jon Zabalegi

BEASAINEN, ARTISTEN MEZENAS XUME BATEN BABESLEKUA

“Aterpe” Taberna

Euskal kultura landu, zaindu eta babestu egin behar dugula aldarrikatu ohi du gure herriak. Hala ere, sarri askotan, han eta hemen kultura horren muestrak eskaintzen direnean, herriak ez du ezer askorik jakin nahi izaten. Jendea joan- zalea den lekuetara artea eramatea begi onez ikusi beharra dago.

Tabernak ditu gustoko herriak, eta, antza denez, artea tabernetara eramatera derrigorturik gaude nolabait. Horixe pentsatzen du Txominnek, Beasaingo Porteria auzoan dagoen Aterpe tabernako jabeak, eta pentsatu bezalaxe egin, hots, aldian aldiko arte-erakusketa bikainak eskeini ohi dizkigu Aterpeko ormetatik zintzilik. Hiru aste-betero berritzen ditu erakusketak. Ezkiaga (Porteria) auzoko festa astea kenduz gero, urte guztian eduki ohi ditu erakusketak.

G.- “Mendia Mahomarengana jaisten ez bada...” Jendea arte- erakusketa aretoetara joateko uzkurra denez, muturren aurrean prantatu behar-ko zaio artea. Hori gogoan harturik abiatu al zinen zu?

E.- Ez, basiera batean ez nuen horretan pentsatu. Taberna hau bartu aurretik bemen zegoen giroa ez zitzaidan batere gustatzen; giro lizun hura aldatzeko eta hobetzeko asmoak nerbiltzan eta hori lortzeko nondik bazi behar ote nuen garbiro ikusi gabe, pintura-erakusketa bat jartzea bururatu zitzaidan. Jendearen gustokoa izan zen eta horrek bildo horretatik segitzera animatu ninduen. Dagoeneko 3 urte daramatzat mugida bonetan eta oso pozik nago, tabernaren giroak hoberrantz egin duelako nabarmen. Gainera, aurreneko erakusketan somatu ere egiten ez nuena, Mahomaren metafora alegia, egia garbia dela dakusat orain.

G.- Zertan izaten dira erakusketen inaugurazioak?

E.- Arte egilea beti etortzen da inaugurazio-egunean, bere lagun artistak ere

azaldu ohi dira eta jende mordoxka biltzen da. Gero lunch bat ematen diet denei, batzuk artelantaz galderak egin, beste batzu berriz ixilik baina adi...

G.- Erakusketek iraun bitartean, zein ote da tabernako bezeroen erreakzioa? Basoerdia eskuan eta barraren arri-muan, soslaiz begiratzen diete artelanei ala hurbiltzen al dira zintzilikakoak gertutik dastatzera?

E.- Bakanen batzuk ez diete artelanei jaramon haundirik egiten, baina gehienek paretetara burbildu eta beren iritzi apalak ematen dituzte. Bezero bati koadro baten detaile bat gustatuko zaion bitartean, beste bati kolore motelak dituela irudituko zaio. Sarritan artelanak aitzaki ederra bilakatzen dira elkar ezagutzen ez duten bezeroak elkarrekin bitz egin dezaten.

G.- Artea ez da dirutan neurtuko, baina zer prezio-modu egiten dute zintzilikatutako koadroak?

E.- Nabiago dut zifrarik ematen ez bastea. Koadro tiki batek beste handiago batek baino gehiago balio dezake, bai dirutan eta baita kalitatean ere. Prezioak jartzearen ardurak artista bakoitzaren baitan dago. Beren lanaren balioa gutxixeagotzat/ gehixeagotzat juzga ditzakete.

G.- Prezioak ez dira edonoren poltikorako eginak. Saltzen al da koadrorik?

E.- Bai, bai, saldu egiten dira. Tira, zenbait erakusketetan ez da alerik ere saldu, baina gehienetan bat edo beste



saltzen da.

G.- Oraindik ez dizkidazu hemendik pasa direnen izenak aipatu.

E.- Izen zerrenda luze samarra da. Goierriko pintoreak: Jokin Telleria, Martin Arruabarrena, Jesus Zulueta, Jesus Gonzalez, Eduardo las Heras, Jabi Soto, Marisol Legorburu... Donostiarrak: Irene Laffitte, J.L. Lizarriturri, Karmen Esparza eta Jose Antonio Martiarena. Kantabriatik, J.A. Gomez eta ia ahazten nuen, Tolosako Matxin Labaien ere bai. Bestalde, Fernando Labordek eta Nicomedes Lopezek argazkiak ekarri zituzten eta eskulturan Antonio Oteiza, Manuel Salgado, Santi Ormaetxea eta Fito eta Aitor Mendizabalen lanak miretsi genituen. Benigno Albenizen uztarri paregabeak ere ikusi abal izan ziren.

G.- Hona ekarraraztea gustatuko litzaizukeen artistarik?

E.- Zumetaren lanak bemen ikustearekin egingo nuke amets. Hori gauzatzea zail samarra da, Zumetaren koadrorik gehienak oso handiak izaten direlako eta Aterpe ez dago behar bezala egokiturik. Felix Vaqueriza ekartzea ere bai, ezta?

G.- Zeintzu dira artista batek bete behar dituen baldintzak? Nola ba-

besten dituzu koadroak taberna barruko arriskuetatik?

E.- Artista guztientzat zabalik daude ateak. Aterpen bere lanak ezagutarazi nahi dituen etor dadila eta konponduko gara. Bestalde, tabernak ezin dituzake eduki museo baten segurtasun neurriak. Orain arte ez da inoiz ezer txarrik gertatu, eta, balabebarrez zerbait gertatuko balitz, ziur egon horratia nola edo bala konponduko ginatekeela.

G.- Aipatu, bizpahiru hitzetan, gerroaldiari begira dituzun proiektuak.

E.- Labur esanda, proiektu eta desio hauek: egunean baino egunean ilusio eta kemen handiagoak eduki nahi nituzke erakusketak muntatzen segitzeko.

Elkarrizketa bukatze aldera, inoren balizko pentsamendu makurrak desegin nahi nituzke. Artearen aitzakiaz baliatuz tabernako salmentari bakarrik begiratzen dion tratalari butsa ez baina tabernari-mezenas xume eta apal bat ikusi dut nik Aterpeko Txominengan.

XABIER GARTZIA

Goierritar txistekak

ATAUN

Pakillo

Pakillok lantegitik alde egiten du. Denbora asko pasatzen da. Gero berriro lantegira doa. Eguardiko hamabietan doa eta galdetzen du:

Ba al dago lanik?

Nagusiak erantzuten du:

Eguerdiko hamabietan lan eske?

Pakillok esaten du:

Ez da niretzat. Filetesentzat da. Oraindik ohean dago

Filetes bere lagun bat du.

Pello

Pello ere lan eske doa. Nagusiak esaten dio:

Zuretzat ez dago lanik urte bat zutan.

Hain gaizki portatu al naiz? - galdetzen du Pellok.

Etorri hemendik urtebetera esaten dio nagusiak.

Goizetik ala arratsaldetik? - galdetzen du Pellok.

Sananton

"Ni ez naiz hemengoa"

Lazkaon bi mozkor daude kalean. Eguna argitzen ari da. Batak esaten du:

Hori eguzkia da.

Ez, hori ilargia da esaten du besteak.

Sananton pasatzen da eta esaten diote: Aizu, hemen eztabaida bat daukagu. Batak hori eguzkia dela eta besteak ilar-

gia dela. Zer esaten duzu zuk? Ataungo Sanantonek erantzuten du:

Ez dakit. Ni ez naiz hemen goa.

Apaizaren txerria

Don Frantziskok txerria hiltzen du. Gatza eman eta urdaiazpi-koak zintzilik ipintzen ditu. Baina bat falta da. Don Frantziskok Dorote dendariari esaten dio:

Aizu, Dorote! Txerriak zenbat hanka dauzka?

Neskamearen aurrean esaten du hori. Dorote lau esaten du. Orduan Frantziskok:

Eta gureak nola dauzka, ba, hiru?

Odolki lapurra

Beste behin ere Don Frantziskok txerria hiltzen du eta igandeko sermoian esaten du:

Bart odolkiak faltatu zaizkit. Lapurra hementxe dago. Odolkiak jan ditu eta ezpainak markaturik dauzka.

Orduan gizon batek muturrak garbitzen ditu. Halaxe salatzen du bere burua.

Sermoi elektorala.

Bozketak dira herrian: karlistak eta liberalak. Emakumeek Don Frantziskori galdetzen diote:

Nori emango diogu botoa?

Don Frantziskok esaten du:

Egin lo lasai. Bihar goizeko mezan esango dut.

Eguna heltzen da eta Don Frantziskok mezaten esaten du:

Orate frates. Karlistak eta liberalak, denak dira igoalak. Kredo in unum Deum.

ZEGAMA

Gauon.

Antonio begibakarra lanean ari da trenbidean. Pikatxoiaz harria jotzen du eta printza batek begian jotzen du. Momentu batez begi ona ere itxita dauka. Eta esaten du:

Jaun-andreak, gau on.

Bizikletan oinez.

Beste Antonio bat, Antonio igeltseroa da. "Antonio Bolas". Gezur eta ipuin handiak asmatzen ditu. Behin oinez doa eta bizikleta eskuan darama. Emakume batek galdetzen dio:

Zer, Antonio? Zer dauka bizikleta horrek?

Eta Antoniok erantzun:

Gaur ezin da gainean jarri. Gaur "igel" dago eta geratu egiten da. (Igel: astemea ar eske).

Hegazkin harrigarria

Zer Antonio? - galdetzen diote beste behin. Gaur ez al dago bidairik?

Antoniok erantzuten du:

Ez, ba. Gaur etxean egon behar dut. Atzo Valentzian izan naiz. Txalupan joan nintzen Teruelen zehar. Han hegazkin bat erosi nuen. Hegazkina et-

xera ekarri eta ganbaran juxtu-juxtuan sartu zen. Gaur goizean joan naiz eta ezin bidaian irten. Hegazkinak hiru hegazkinkume egin ditu.

Tximinia nola egin.

Gaur fabrikari tximini bat egiten ari naiz esaten du Antoniok. Lagun baten esaten dio:

Ez da lan erreza izango hori.

Orduan Antoniok esaten du:

Bai gizonak lehenbizi konpasarekin goitik neurtzen da. Gero harri bat edo bi goian jartzen dira. Horixe da zailena. Gero goitik behera, pixkanaka, erraz-erraz etortzen da tximinia.

Usoen azaina

Behin Antonio ehizara joaten da. Usotara joaten da.

Bueltan galdetzen diote:

Zer, Antonio? Uso asko?

Antioniok erantzuten du:

Asko bai, baina niretzat ez. Apuntatzen dut eta usoek antze-man. Igarri egiten dute. Orduan denek batera adarrei heldu eta hegan hasi dira. Pagoa ipurditik atera eta ihesi joan dira.

Eguraldia.

Bihar zer eguraldi egingo du, Antonio? - galdetzen diote. Eta Antoniok erantzuten du:

Bihar laino gainetik ona.

Xabier Amuriza,
"Harri eta Irri" (1983)

JEXUX LETE, "IBAI-ERTZ"-EKIN, BERTSO KONTU KONTARI

"Bertsolariak ikustera?"

"Ez, entzutera!"

- ASPALDIAN geneukan itsasondoar honek dituen bertso-kontuen egarririk. Hala, bere ibai-ertzeko etxera hurbildu eta han aurkitu dugu paper, liburu, trofeo, e.a.-ez inguraturik. Zer moduz?, galde eta "argalean pijo", erantzun du. Zer nahi duzu bada 70 urterekin?

- Esnatu, gosalduta eta lehen lana irakurtzea du. Irratiz bertsoak entzun, "D.V."rako eta Loiolako Herri Irratirako idatzi... horrela botatzen du eguna Letek. Euskaltzaindiak 62.ean bertso-paper lehiaketa bat jarri zuen, eta, Oriaren ertzean jaio eta bizi obi delako, Ibai-ertz gaitzizena hartu irabazi. Geroz ere sariak irabazi izan ditu eta "barau naturalean" gelditu ere bai. "Orain ez naiz gai gaurko gazteekin lehiatzeko, oso onak daude eta"

- Bertsolari, bertsozale, bertso-jartzaile, zer zara?

- Bertsolarien irteera batzu badi-tut, baina nire burua ez dut sekula bertsolaritzat jo. Hori bai, egun berezietan kantatu izan dut "enbotei-latu" horietako bat. Bestela, "nulo". Mutil koskorretatik naiz bertsozale: herriko Udaletxeko Ostatuan jaioa naiz eta udaletxean Joxe Anjel Izuzkiza sekretario. Oso euskaltzalea, mitinik mitin ibiltzen zen, EAJ-koa zelarik. E Dia, Euzkadi, Argian herriko berriak ematen zituen Murrumendi ezizenarekin. Patxi Erauskin, Erauskin Errotaria, Billafran-

kako zaldibitarra etortzen zen bonengana bertsoak garbian jartzera. Bertso-paperak ugari kantatu eta egin, niri, artean mutilkoskorra, musu-trukean ematen zizkidan. Hortik eta bara.

- Eta bapateko bertsorik egundo entzun zizkiozun?

- Ez. Basarrik esaten du nola ari zen mitin batean Erauskin oboltzan; lagunek esan diote: "I ori ainbat ba aiz" eta, derrigorrez, igo arazi eta bertsoetan jardun zela. Zestuan gertatua. Basarrik 17 urte orduan.

- Bapatekoak non entzun zenituen lehen aldiz?

- 36ko udaberrian, Alderdiak erabaki zuen herri bakoitzak berean ospatuko zuela Aberri Eguna. Artean 14 urte neuzkan. Faustino zaldibitar amerikanoak ekarri zituen Artzanbarri, Txapel eta Zepai bere kotxean. Egun hartako bi esaldi ditut gogoan: penagarria zela neskatx euskaldunak kastellanoekin ezkontzea eta politiko batzuk esku batean gurutzea zeramatela eta pistola bestean. Hori entzutean, musumintzak ederki zimurtuak baziren. Egun hartan jabetu nintzen bertsoaren errimaz, ez ordea neurria zer zen. Biharamonean bertso-tan hasi nintzen: batzuk bankamotzak eta besteak hankaluzeak botatzen nituen. Ondoren gerra etorri zen eta, euskera jipoitzea-



rrren, plazako bertsoak galerazi egin zituzten.

- Bertso-munduaren puntan

- Legorretako "Jainkoa"ren taberna-ra ekarriarazi zuten itsasondotarrek gerrako prisionero zegoela Basarri "eta bere bertsoak entzuten gozamen ederra hartu ere bai". Lehen Bertso sariketa berriz, 45.ean. Aramako Ibaresko Xatur okinak, "Zer Jexux, bertsolariak ikustera?", galde. "Ez, entzutera" erantzun zion. Hara hor bertsolari-kutsua duen erantzuna.

Egun hartako errebelazioa 16-17 urteko Mitxelena izan zen. Bertsolari bakoitzari txapela bana eman zieten. Zepairi ematean, harrika, jendartera bota zuen. "Mindua zegoen Zepai eta, nire ustez, arrazoi handiz. Franco goratzeko gaia eman zioten eta berak esan zuen ez zuela goratuko Franco zala bide; gerran, anai bat edo bi hil zitzaizkiola eta. Ondo erantzun ez eta puntuazio txikia. Horrekin zegoen mindua.

Donostiako La Perlan ezagutu zuen

Manuel Lasarte. Zarauzko Zineman Xalbador eta Mattin iparretarrak. Uztapide,

Zaldibiako Benta Berrin, Joakin Zubeldia eta Martina Lizarazuk taberna zeukatenean. Txomin Garmendia eta Joxe Agirre "Oranda" Aginagan, S. Luisetan. Gehiago ere han ezagutu zituen, baina denak ezin gogoratu. Ordurako bertso- munduan "muturra" zerbait sartua zeukan eta oso lagun egin zituen Juan Mari Lekuona eta Fernando Aire, "Bordari". "Bazkaldu genuen eta Lekuonak esan zidan arratsaldeko saiorako nahiko urri zeudela gaiekin eta ea lagunduko al nion berriak prestatzen. Zer gehiago nahi nuen nik?". Azkenik, Bordarik presa zuela eta Lete utzi zuen ordezkio.

Geroztik, makina bat korritu du Jexuxek, nahiz elbarri xamarra izan gerriz-behera. Ordizian ez ezik, Ant-

zuolan, Loiola Herri Irratian, Andoain, Zumarragan, Lazkao, Lazkaon, Lesakan, non ez juradoko? Gai-jartzaile legez, Gipuzkoa gehienez. Garaiko Txapelketa Nagusi guztiak entzuna, belarria tente edukiz gero, asko eta asko ikasten dela.

- Nolatan hasi zinen bertso-sariketen antolatzaile?

- Billafrankako Agorreko Euskal Jaiak nabiko eroriak zeuden eta Laguntasunako gazte batzu etorri zitzaizkidan festak berpizteko eskariarekin. 58.a zen. Plazaratu gabe-ko bertsolari-sariketa jarri genuen. Lau bertsolari etorri zitzaizkigun: Bidaniatik Beloki anaiak bi eta Gaintzako beste bi, Bernardo Albe-rrro eta Patxi, Mendizabal? 59.ean Gipuzkoako Bertsolari berrien Txapelketa eratu eta arrakasta ikaragarria izan zuen. 18 bertsolari. Txomin Garmendia txapeldun. Epai-

mabaia, berriz, bertso munduko bertsozale jakintsuenez osatua, Basarri buru. Prestaketa denak nire gain. Jendetza ikusgarria bildu zen.

- Gaurko Txapelketetan mahaiko jarriko al zinateke?

- Ezta pentsatu ere. Batetik urteek ez dute barkatzen eta ni ez naiz, bestetik, gaur dauden bertsolari on eta zorrotzak epaitzeko kapaz. Gauza bat argi utzi nahi dut: ber-ritarra dugun Xabier Zeberio bertsolari-bertsolaria dela. Lehengoei buruz zer esango dizut? Oraindik ojo!, Lazkao Txiki, Lazkano, Joxe Lizaso, Agirre eta besterekin. Txapelketan ez dute parte hartzen, eta oso ondo egina. Daukaten gradua baino gehiago ez lukete lortuko eta, behar bada, daukatena galdu bai.

"ARBEL-AITZ"

Gastronomia

Egunez ikusi eta gauez jan... ...Araman "Toki-Alai" jatetxean

Agian, bertako lasaitasunak erakartzen du Aramara goie-rriar nahiz kanpotar jalea. Gipuzkoako herri txikieneko frontoi zahararen alboan, bertako plazan (ez dago galtzerik!) aurkituko duzu "Toki-Alai" jatet-xea, Itsasondorako bistak dituen balkoi paregabea.

Etxe horretako andreak, Mari Jose Aldasoro astigarretarrak, ia 25 urte daramatza Araman eta Herriko Ostalua den horretan, berriz, 15 bat, makina bat arduratzen baitu bai herri mailan eta bai bere etxean. Orain 3 urte ostatu osoa berri-tu zuen Udalak; nahiz eta ber-rituaren ondoren lehengo xar-ma galdu, dotoretasunean ira-bazi du horratio, eta eskaera areagotu da. Baita umeentza-ko lasaitasuna beraz, ez da paotxa makala!



Etxeonagusia, Martintxo ere, sukaldari aparta izan behar du eta beharko aritu. Izan ere nahiko lana izaten baita de-nentzako. Egutero 50 bat bazkaltar dituzte eta sarri inguratzeko jendea afaltiarra asteburuetan. Gero, komunio, bataio, despedida, koadrila-afariak, dagoeneko hasi diren inguruotako herrietako festazale ugari. Oso popularra egin baita Aramako.

Zergatik guzti hori? Jaten ondo eman eta modu onean emanagatik. Beren espeziali-

dadeak, "oso modan dauden entremes bereziak": txangurro barru-beteak, ganba-espinaka eta baratxuri nahasketak, kangrejuak, "Jabugo" urdaiazpi-koak, frejitu nahasiak, xixa-tor-tillak, e.a.

Oso tipikoa omen da Ara-man, legatza saltsan eta ko-gotearekin hasi eta gainean arkume-saiheskia eta txuleta-puxkatuak ematea. Zaharra-ren txuletak, solomotoak, e.a. txapan, zalearen gozamene-rako. Postreen karta ugaria da, baina etxe-ko kopa bere-

zia da gomendagarria. Gaz-ta, berriz, Beizamako "Ame-nabar" baserriko izebak egi-na. Ardoen aukera nahiko za-bala, errioxako ardoak; sa-gardoa Garziategirenatik da-karte.

Kartako afari berezi horrentza-ko aurrekontua 3.500dik gora dabil. Asteguneko menuarena ere ondrosoa: 800 pzta.

"Toki-Alai"ko etxe-koandreak bezero asko irabazi ditu garai batean hainbat koadrilen pre-supostuetara moldatzen jakin izan dituelako afari asko eta askoren prezioak. Galde egie-zu paraieotako saskibaloizale eta futbolzaleei!

Zer izango ote da obratan den frontoi berria egiten dute-nean Araman? Torizu, bada-ezpada, telefonoa: 888953

JON BELARRA



BEASAINGO UDALA

BEASAIN euskaldun egin dezagun



*Bazkoa igandetik zenbatuta seigarren asteburuan ospatu ohi ziren Loizatzko Feria handi
haien jarraipen ditugu gaur egungo Loizatz- Jaiak.
Geure eguneroko kezakak, ardurak eta lanak ahaztu gabe, baina jaiegun hauetan horiek pixka
bat alboratuta, giro alai eta baketsuan igaro ditzagula jaiak, bai herritarrok eta baita auzo-
herrietatik Beasaina etorriko zaretenok ere.*

Jose Luis Arriola Trueba
Beasaingo Alkatea.

Ordiziako Udala



Ordiziako Udalak
Azokari

Azokak euskarari eutsi
diolako

eta

euskarak herriari

"Ekin Euskarari"